


1.



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

HORNIDURA- KATEA: EKOIZPENA, BANAKETA ETA KONTSUMOA




Zentuz kontsumitu
consume **con Sentido**



GIDA PRAKTIKOAK:
erosketa publiko arduratsua

HORNIDURA- KATEA: EKOIZPENA, BANAKETA ETA KONTSUMOA

GIDAREN HARTZAILEAK

Udal, probintzia edo autonomia-erkidegoko arlo edo organoetako arduradunak.

Zerbitzu publikoen kudeaketan zuzendaritzako funtzioak dituztenak, plangintza-funtzioak betetzen dituztenak eta kontratazio-prozedurak gauzaten dituztenak.

Udaletan kontratazio-prozedurak hasteko ardura duten teknikariak eta kargu publikodunak.

Erosketa publikoan interesatutako pertsonak.

DISEINUA ETA MAKETAZIOA

Labox Marketing y Comunicación

EDIZIOA

Santiago Lesmes Zabalegui eta Zentzuz Konstumitu

ISBN

LAGUNTZAILEA



araba álava
foru aldundia diputación foral

FINANTZATZAILEA



Ayuntamiento
de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko
Udala

Edukiak

AURKEZPENA	05
KONTRATAZIO PUBLIKO ARDURATSUA	07
1. Produktuen eta horniduren ekoizpen-baldintzak eta hornidura-kateak	08
2. Erosketa arduratsua kontratu publikoei buruzko legedian	13
GIDA PRAKTIKOA	14
1. Zer kontratatzen da?	19
Printzipio orokorra	19
Kontratuaren objektuaren definizioa	20
Produktu edo hornidura arduratsuen sortak	26
Preskripzio edo zehaztapen teknikoak	29
Erantzukizun sozialeko etiketak eta ziurtagiriak	34
2. Enpresak hautatzea	46
Kontratu erreserbatuak	46
Kontratu txikiak eta gonbidapenak	52
Kaudimen tekniko soziala	54
3. Zer baloratzen dugu?	57
Adjudikatzeko irizpideak	57
Berdinketa ebazteko irizpideak	67
4. Zertara behartzen dugu? Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak	70
5. Nola egiaztatuko dugu? Betetzearen egiaztapena eta kontrola	77
6. Ondorioak	82

Aurkezpena

Zentzuz Kontsumitu-Consume con Sentido partzuegoan urteak daramatzagu hainbat tresna nahiz ekimen bultzatu eta ezagutarazteko lanean, halakoak lagungarriak izango zaizkigulakoan ulertzeko maila globalean -arlo estruktural, ekonomiko, sozial nahiz generokoan- dauden berdintasunik ezeko nahiz jasangarritasuneko arazoak, eta arazo horiek kontsumoaren bidez lotzeko, era berean, toki-mailan, gure eguneroko errealitateetan, gertatzen denarekin.

Toki-maila eta maila globala lotzeko saio horretan, eta erantzunen bila abiatuta, bestelako garapen bat sustatu ahal dugu toki-mailako kontsumo arduratsuko praktiken bidez. Horretarako, ekonomia sozial eta solidarioan oinarritzen gara eta erosketa publikoa eraldaketa sozialerako tresna gisa sustatzeko lanaren alde egiten dugu apustu. Administrazioak egindako erosketa publiko arduratsuak jasangarritasun, hurbiltasun, elkartasun, giza eskubideekiko errespetu eta genero-berdintasuneko irizpideak betetzen dituen kontsumo bat bultzatzen du eta, beraz, garrantzizko paradigma-aldaketa bat.

Ildo horretan, kontratazioari buruzko lege berriak harreman-esparru berri bat planteatzen du, oso ikuspegi itxaropentsukoa; izan ere, ohiko zerbitzu edo hornidura bat emate hutsera ez mugatzera behartzen ditu kontratazio publikoak, helburu sozial zein

ingurumen-helburu batzuk lortzera ere behartzen baititu. Esaterako, genero-berdintasuna, garapen jasangarria, inklusio soziala edo giza eskubideen errespetua. Tresna ahaltsua da bai gizartea, bai bertan dauden harreman-erak aldatzeko, lanaren, ekonomiaren, arlo sozialaren, eta ingurumenaren aldetik.

Gure aburuz, lurralde nahiz gizarte hobe bat egin daiteke kontratazio baldintza-agiri bat gizartearen beharrianak zaintzeko tresnatzat baliatuz. Paradigma kulturalaren ageriko aldaketa bat da, eta han Administrazio publikoek badute aukera, kontratazio baldintza-agiri batzuen bidez, pertsona jakin batzuen nahiz gizartearen bizi-kalitatea hobetzen laguntzeko.

Hori lortzeko, tartean diren eragile guztiak inplikatu behar dira, produktu edo zerbitzu baten ekoizpenetik azken kontsumitzaileeraino, hornidura-kate guztian zehar kontsumo arduratsua sustatuz. Horri dagokionez, politika publikoak formulatzeko eta aplikatzeko ardura duten pertsonak badute rol erabakigarri bat.

Haixentzat, batez ere praktikoak den gida hau ondu dugu. Gidarekin, argitasuna emateaz gain, tresnak eskuragarri jarri nahi ditugu, halakoak baliatuz erosketa publiko arduratsuen begiradaren bidez klausula etikoak, sozialaketaingurumenekoak hornidura-kate guztian sartzea errazteko eta sustatzeko.



Kontratazio Publiko Arduratsua



1. Produktuen eta horniduren ekoizpen-baldintzak eta hornidura-kateak

NBEk bultzatutako 12. garapen jasangarrirako helburuan jasotzen denez (ekoizpen eta kontsumo arduratsuari buruzkoa), kontsumo- eta babes-modalitate jasangarriak bermatzea aldeztu da. Ildo horretan, badirudi funtsezkoa dela bidezko eta jasangarritasunezko **ekoizpen-banaketako eta kontsumoko kate** batzuk garatzea, aztarna ekologikoa premiaz murriztuko dutenak, eta horretan Administrazio publikoek badute zer esan handirik.

Kontratazio publikoak berebiziko garrantzia du estatuko nahiz Europako ingurunean, erosketa publikoaren bolumena Barne Produktu Gordinaren % 15 inguru izaki.

Datu hori Espainiako estatura estrapolatzen badugu, ehuneko hori benetako zenbatekoa bihurtzen da, 150.000 milioi euro, alegia. Kopuru horrek agerian uzten du, makroekonomiaren ikuspegitik, zer-nolako garrantzia duen kontratazio publikoak ekonomian nahiz enpleguan.

Baina ez da aintzat hartu nahi dugun ikuspegi bakarra, aurrekontu-zenbateko guztiz handi horrek aparteko potentziala baitu merkatuan eragina izateko, etikaren, arlo sozialaren nahiz ingurumenaren aldetik.

Horri dagokionez, egun ez dago kontratazio publikoa bereizterik munduko testuinguru ekonomikotik eta globalizazioa eta interkonexioa ezaugarritzat dituen merkatu-ekonomia batetik. Hau da, ez dugu jada hitz egiten merkataritza tradizional batez, lehengai hutsen esportazio eta inportaziora mugatutako alde biko harreman batzuetan oinarritzen den merkataritza batez. Halako harremanei -XX. mendeko prisma etikoan zehar ikusirik-postkolonizazioko Iparralde-Hegoalde harreman batzuen esparruan hel zekiekeen, non herrialde batzuek (pobretuak) lehengaiak ekoizten baitzituzten, eta beste batzuek (aberastuak) haiek eskuratzen.

Egun, aitzitik, munduko merkataritzan hornidura-kate konplexuak dira nagusi; mugarik gabekoak dira, eta produktu zein zerbitzu gehienak hainbat herrialdetan ekoizitakoak izatea ahalbidetzen dute.

Ekoizpenaren zatiketa hori azeleratuz eta konplexuago bihurtuz joan da azken bi hamarkadetan, hein batean, teknologia berrien ondorioz, komunikazioen kostuak

txikitu egin direlako; izan ere, halakoek bide ematen dute ondasun bakoitzaren ekoizpena herrialde-kopuru handiago baten artean zatikatzeko eta zeregin bakoitza edo ekoizpen osoaren zati bakoitza guztira kostu gutxien duen herrialdean kontzentratzeko.

Hala, hornidura-kateak osatzen dituzten prozesu eta zereginei begiraturik, produktu bat Europako denda batera iritsi aurretik, baliteke gerra betean dagoen Afrikako herrialde pobretu bateko lehengaiak erabili izana, lehen eraldaketa lan-eskubiderik eza nagusi den Erdialdeko Amerikako herrialde batean egin izana, eta Asiako goranzko ekonomia batetik igaro izana, non osasun-baldintzarik eta ingurumen-irizpiderik batere ez baitago.

Errealitate konplexua da, eta egungo gizartearen konplexutasunik nahiz haietako eragileen ikuspegitik -bakoitzaren ahalbideen arabera- ere heldu behar zaio.

Horregatik ondu dugu gida hau. Ikusgai jarri eta erakutsi nahi dugu Administrazio publikoan jardura egokiak aurrera eramaten hasi direla, ekoizpen-banaketako eta kontsumoko kateetan oinarritzko gai batzuk bermatzeko, hala nola giza eskubideak eta pertsonak zein ingurumena errespetatzen dituen ekonomia- eta merkatu-sistema bat garatzea, eta, nahiz oraindik ibilbide luzea geratzen den, badaudela Administrazio aitzindari batzuk, indarrean den legedira egokitzen ari direnak eta, beraz, kontsumo arduratsu eta eraldatzailea sustatzen ari direnak, gero eta gizarte ekitatiboago eta birbanatzaile batzuetara iritsi gaitezen.

Hitzak eta asmoak gorabehera, errealitatea gauza praktikoekin eraldatzen da. Eta kontratazio publikoan, baldintza-agiri bat izan daiteke, izan ere, horrelako gauza praktikoa.

Tratatuko ditugun gai batzuk irudikatu ahal izateko, jarraian zenbait hornidura eta produktu aipatuko ditugu, kontratazio publikoa egitean, haien hornidura-kateen inguruan gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak sartzeko aukera dagoela eta.

Hartara, kontratazio publikoan, kontratazioko baldintza-agirietan klausula sozialak, ingurumenekoak edo generokoak sartuz, bidezkoagoak eta solidarioagoak diren alternatiba batzuk sostengatu eta bultzatuko ditugu. Besteak beste, alternatiba hauek susta ditzakegu:

Elikagaien eta jantzien arloan

BIDEZKO MERKATARITZA

«Bidezko merkataritza elkarrizketan, gardentasunean eta errespetuan oinarrituriko sistema komertzial bat da, nazioarteko merkataritzan ekitate handiagoa lortu nahi duena, gizartearen eta ingurumenaren inguruko irizpideetan arreta berezia jarrita. Lagungarria da garapen jasangarrian, baldintza komertzial hobekuntza eskainiz eta egoera ahuleko ekoizleen eta langileen eskubideak ziurtatuz, Hegoaldean bereziki». Nazioartean adostutako hamar irizpidetan oinarritzen da, eta haien bidez bidezko tratua bermatzen da antolakunde ekoizleentzat, langileen giza eskubideak eta ingurumena errespetatzeaz gain.



<p>1 AUKERAK SORTZEA DESABANTAILA EKONOMIKOAK DITUZTEN EKOIZLEENTZAT</p>	<p>2 GARDENTASUNA ETA ERANTZUKIZUNA</p>	<p>3 BIDEZKO MERKATARITZA JARDUERAK</p>	<p>4 BIDEZKO PREZIOA ORDAINTEA</p>	<p>5 HAUREN LANIK ETA BEHARTUTAKO LANIK EZ EGOTEA ZIURTATZEA</p>
<p>6 BAZTERKERIARIK EZ, GENERO-BERDINTASUNA ETA ELKARTZEKO ASKATAZUNA</p>	<p>7 LAN BALDINTZA ONAK BERMATZEA</p>	<p>8 GAITASUNAK GARATZEN LAGUNTZEA</p>	<p>9 BIDEZKO MERKATARITZA SUSTATZEA</p>	<p>10 INGURUMENA ERRESPEATZEA</p>

EHUNGINTZAKO PRODUKTUAK, ARROPA GARBIA KANPAINA

Arropa Garbia Kanpaina (AGK) sare bat da, hainbat GKEK, sindikatuk eta kontsumitzaile-elkartek osatutakoa, eta bertan jantzigintza-industria globaleko langileen baldintzak hobetzeko lan egiten dute.

Ekimenaren helburuak dira lan-baldintzak Lanaren Nazioarteko Erakundeak (LANE) ezarritakoen arabera izatea eta ehungintzako ekoizpenak ingurumenean duen inpaktua minimizatzea.



Produktu teknologikoen arloan

PRODUKTU TEKNOLOGIKOAK

Electronics Watch-i esker, langileek ikuskatzaile sozialei normalean jakinarazten ez dizkieten hainbat arazo atzeman ditzakete erosle publikoek, gorabeherak, orobat, garaiz zuzen ditzakete, bai eta arazo sistemikoak epe luzera konpondu ere. Monitorizazio-entitateen nazioarteko sareak erosle publikoei aukera ematen die eskualde elektronikako ekoizleetan oin bat jartzeko, eta aurrekaririk gabeko ahalmena sortzen du kontratuen eta segurtasun-arauen jarraipena egiteko produktu elektronikoen hornidura-kateetan. Entitate publikoen lankidetzak, haien mugen barruan zein haietatik kanpo, beharrezko indarra eta ahalmena sortzen du lan behartuaren aurka nahiz laneko osasun eta segurtasunerako arriskuen aurka borrokatzeko, eta langileen lan-baldintzak hobetzea lortzeko.





Gatazkarik Gabeko Teknologia **ALBOAN GKEaren** kanpaina bat da, eta haren asmoa da ezagutzera ematea mugikorrek, tabletek eta ordenagailuek Kongoko Errepublika Demokratikoko ekialdeko gerrarekin duten lotura.

Ingurumen-jasangarritasunaren arloan

INGURUMEN-IRIZPIDEAK: ZURA, PAPERA, KOTOIA, ETAB.

Geroko fabrikazio-prozesuetan erabiltzen diren lehengaiei dagokie. Horietako batzuk zura, papera, kotoia eta abar dira.



Laburbilduz, gure asmoa da azaltzea nola kontratazio publikoak barne hartu eta lehenetsi ahal eta behar dituen arlo sozialari, ekitateari, genero-berdintasunari eta ingurumen-jasangarritasunari lotutako alderdiak, edo giza eskubideak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen konbentzioak betetzen direla bermatzekoak.

Helburu hori harturik, ikuspegi praktikoa duen eskuliburu bat ondu nahi dugu, erraz irakurtzekoa eta lizitazio publikoetan izan diren esperientzien erreferentziak ematen dituen. Eskuliburu honek ahalbidetu eta erraztu egingo du erantzukizun sozial nahiz ingurumen-erantzukizuneko irizpideak eta baldintzak sartzea produktu eta horniduren ekoizpen-baldintzen eta hornidura-kateen inguruan, dela kontratazio publikoko baldintza-agiri batean, dela erosketaren publikoko prozesu batean.

2. Erosketa arduratsua kontratu publikoei buruzko legedian

Pertsona askok pentsatuko dute, beharbada, erantzukizun soziala eta kontratazio publikoa, esparru paraleloak eta elkarrekiko ezezagunak ez ezik, bateraezinak ere badirela. Edo baliteke Administrazio publikoetan gai juridikoetako eta kontratazioko arloez, edo idazkaritzaz eta kontu-hartzaitzaz, arduratzen diren teknikariek pentsatzea kontratu publikoei buruzko legediak ez dituela halakoak aintzat hartzen edo, areago, legearen espirituak eta letrak haien aplikazioa murrizten dutela.

Alabaina, ezta hurrik eman ere. Kontratu publikoei buruzko legediak ezarri du, hain zuzen ere, erabateko eta behin betiko bilakaera bat, egiaztatu duena nola arlo sozialeko eta ingurumeneko irizpideek pixkanaka eta gelditu ezinean aurrera egin duten: hasieran, jurisprudentiaren bidez; ondoren, motel eta oso mugatuta; gero, era zabalagoan; eta orain, egiazko betebeharrak gisa, kontratazio publiko arduratsua, hautu guztiz legekoa izateaz gain, benetako betebehartzat ere jotzen da eta.

Hala bada, prozeduran dauden aukerei heldu baino lehen, ez dago sobera gogoraraztea kontratazio publikoan gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak sartzea aipatu, epaitu edo legeztatu duten erreferentzia esanguratsuenetako batzuk.

Garrantzizko aurrekariak

- Batzordearen «**Kontratazio publikoa Europar Batasunean**» komunikazioa, 1998ko martxoaren 11koa, COM (98) 143. Lehen aldiz aipatzen du kontratazio publikoan irizpide sozialak sartzea.
- Batzordearen interpretazio-komunikazioa, kontratu publikoei buruzko Erkidegoko legediaz eta kontratu horietan alderdi sozialak integratzeko aukeraz, 2001eko urriaren 15ekoa, COM (2001) 566 amaierakoa. Komunikazio honek era integralean tratatzen ditu prozeduraren aldetik kontratazio-prozesu batean irizpide sozialak sartzeko dauden aukerak. Berriaz aritzen da kontratuaren objektuaz, kaudimen teknikoaz, lizitatzailen hautaketaz, zehaztapen teknikoaz, adjudikatzeko irizpideez zein kontratuak egikaritzeko baldintza bereziaz.

Erkidegoko jurisprudentzia

- Laurogeita hamarreko hamarkadaz geroztik, Europako Erkidegoetako Justizia Auzitegiak zenbait epai eman zituen, ontzat eman zituztenak arlo sozialeko eta ingurumeneko irizpideak sartzeko praktikak, estatu kide batzuetan halako praktikak aurrera eramaten ari zirela eta. Halakoak, legezkotasun osoa emateaz gain, azkenean zuzenbidearen iturri bilakatu ziren, eta gero Europako zuzentarauetan jasoko ziren.

Haien artean, aipatu behar dira 1988ko irailaren 20ko Beentjes epaia (31/87 auzia), **Nord-Pas-de-Calais epaia** (C-225/98 auzia), 2002ko irailaren 17ko Concordia Bus epaia (C-513/99 auzia), edo 2003ko abenduaren 4ko **EVN Wienstrom epaia** (C-448/01 auzia).

- Eta bidezko merkataritzaren, hornidura-kateen, etiketa sozialen eta ingurumen-etiketen arloan, zehazki, nahitaez aipatzekoa da 2012ko maiatzaren 10ean Justizia Auzitegiak (Hirugarren Sala) emandako epaia C 368/10 auzian, Batzordea vs Herbehereak, **Max Havelaar** auzia deitutakoaren inguruan.

Europako Batzordeak arau-haustearengatiko prozedura batsustatu zuen Herbehereen aurka, EBko zuzentaruaren kontrakotzat jotzen baitzuen, edariak saltzeko makinaren errentamendurako kontratu baten lizitazioan, adjudikatzeko irizpide bat sartu izana, produktu jakin batzuek bidezko merkataritzako jatorria eta etiketak izatea baloratzen zuena (Max Havelaar eta EKO zehazki). Epaiak irizpide horien baliozkotasuna ezarri zuen, eta Max Havelaar auzia¹ zeritzonak bultzada eman zien zuzenbidearen barruan bidezko merkataritzako etiketen erabilerari zein haien baliozkotasun osoari.

1. Bidezko merkataritzako (Fairtrade) lehen ziurtagiria 1988an sortu zen, Max Havelaar izenarekin, Herbeheretan, bertako Solidaridad GKEaren ekimenez. Eduard Douwes Dekker idazlearen eleberririk batetik dator kio izena. 1890. urtean argitaraturik, Herbehereetako gobernuak XIX. mendean eginiko bidegabekeriaren berri ematen du; izan ere, garai hartan tasa astun eta neurrigabe batzuk ezartzea erabaki zuen Indonesiako tegintzako eta kafegintzako nekazariarentzat, kolonoen eta gobernuaren beraren mesedetan. Eleberriko protagonista Max Havelaar da, eta sistema ustel eta bidegabearen aurka borrokatzen saiatzen da. Mende bat geroago, haren izena bidezko merkataritzako munduko lehen ziurtagiria izendatzeko erabili zen.

Europar Batasuneko kontratu publikoei buruzko zuzentarauak

- 2004. urtean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2004/18/EE Zuzentaraua** onartu zen, 2004ko martxoaren 31koa, obra-, hornidura- eta zerbitzu-kontratu publikoak adjudikatzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa.

Lehen aldiz, lizitazio publikoetan irizpide sozialak sartzeko, prozeduren aldetik dauden aukerak onartu, arautu eta esplizitatu zituen kontratu publikoei buruzko Erkidegoko legediak.

- 2014. urtean, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren **2014/24/EB Zuzentaraua** onartu zen, 2014ko otsailaren 26koa, kontratazio publikoari buruzkoa.

Zuzentarau horretan, kontratazio publiko arduratsua sendotzen jarraitu ez ezik, aukerak zabaldu ere egiten dira, eta berariaz aipatzen da merkataritza ekitatiboa, gutxieneko prezio bat eta ekoizleentzako prima bat ordaintzeko baldintza barne.

Estatuko kontratazio publikoari buruzko araudia

- **30/2007 Legea**, urriaren 30ekoa, Kontratu Publikoei buruzkoa. 2004ko zuzentaruaren nahitaezko transposizio gisa onartu zen. Espainiako legedian lehen aldiz irizpide sozialen baliozkotasuna aitortu zuen kontratu publikoak lizitatzeko, adjudikatzeko eta egikaritzeko prozeduraren zenbait fasetan.


Zioen adierazpena:

3. Sektore Publikoko Kontratuen Legeak berdin-berdin eta salbuespenik gabe jaso ditu 2004/18/EE Zuzentaruaren jarraibideak, eta, bere mende dauden negozioak prestatzeari eta esleitzeari dagokionez, berrikuntza nabarmenak sartzeko ditu. Labur-labur azalduta, kontratazio publikoan ingurumenari eta lan-arloari dagozkion irizpideak sartzeko modua ematen duten mekanismoei dagozkie berrikuntza nagusiak, eta kontratua gauzatzeko baldintza berezitat ezartzen ditu, edo eskaintzak baloratzeko irizpidetzat. Halaber, kontratuak betekizun etiko eta sozial berriei egokitzeko arauak biltzeko modua ematen duen egitura bat eratzen du. Betekizun etiko eta sozial horien artean daude, esate baterako, prestazioak azpigaratutako edo «bidezko merkataritzaren» betekizunei egokitzea, Europako Parlamentuak Bidezko Merkataritzari eta Garapenari buruz emandako Ebazpenak aurreikusten duen moduan (2005/22445 (INI).

- **9/2017 Legea**, azaroaren 8koa, Sektore Publikoko Kontratuena. Espainiako estatuan indarrean den araua da, 2014/24/EB Zuzentaruaren transposizioa nahitaez egiteko betebeharragatik onartua. Xehetasunez analizatuko dugunez, espirtu arduratsu nabarmena du, eta ugari aipatzen ditu irizpide sozialak nahiz ingurumen-arlokoak kontratazio publikorako prozeduraren faseetan zehar.



Gida praktikoa



Gida honen aukeren eta edukien laburpen bat

IRIZPIDE SOZIAL ETA INGURUMENEOAK EKOIZPEN-KATEAN

Zer kontratatzen dugu?	Enpresa lizitatuak hautatzea	Zer baloratzen dugu?	Zertara behartzen dugu?	Nola egiaztatuko dugu?
<ol style="list-style-type: none"> 1. PRINTZIPIO OROKORRA (SPKL 1.3) 2. KONTRATUAREN OBJEKTUA (SPKL 99.1) 3. SORTAK (SPKL 99.3). 4. ZEHAZTAPEN TEKNIKOAK (SPKL 125) 5. ETIKETAK (SPKL 127) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. KONTRATU ERRESERBATUAK (SPKL 4. XG) 2. KONTRATU TXIKIAK (SPKL 118) 3. KAUDIMEN TEKNIKO SOZIALA (SPKL 89 eta 90) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK (SPKL 145) 2. BERDINKETA EBAZTEKO IRIZPIDEAK (SPKL 147) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. KONTRATUAK EGIKARITZEKO BALDINTZA BREZIAK (SPKL 202) 	<ol style="list-style-type: none"> 1. FUNTSEZKO BETEBEHARRAK (SPKL 202) 2. ZIGORRAK (SPKL 122) 3. SUNTSIARAZTEA (SPKL 211) 4. EGIAZTAPENA (SPKL 62)
<p>Adibidez: catering-zerbitzu batek bidezko merkataritzako produktuak izatea, Fairtrade etiketaren araberakoak.</p>	<p>Kasu zehatz batzuetan, kontratu erreserbatuetara, kontratu txikietara eta kaudimen tekniko sozialera jo ahal izango da, enpresa lizitatuak hautatzeko.</p>	<p>Adibidez: arropa-hornidura baten adjudikazioa zein enpresak jasoko duen erabakiko duen baremoan, baloratu egingo da Made in Green etiketa, Fair Wear etiketa edo baliokidea izatea.</p>	<p>Adibidez: nahitaezko betebehartzat ezartzen da ekoizpen-kate guztian zehar oinarritzko lan-eskubideak eta LANEren konbentzioak errespetatzea.</p>	<p>Kontrol eta egiaztapeneko sistema ezarriko da. Ez-betetzea gertatzen denerako, ondorioak xedatuko dira. Kontratatuek irizpide sozial eta ingurumenekoak betetzen dituztela egiaztatu beharko dute.</p>

1. Zer kontratatu nahi dugu?

Printzipio orokorraren aplikazioa

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 1.3 artikuluan hau dago xedaturik:

1. artikulua. Xedea eta zertarakoa.

3. Kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartuko dira, kontratuaren objektuarekin zerikusia duten bitartean, sinetsita haiek sartzeak kalitate-prezio erlazio hobea emango duela kontratu- prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran. Halaber, enpresa txiki eta ertainen eta ekonomia sozialeko enpresen kontratazio publikorako sarbidea erraztuko da.


Nabarmena da kontratuen lege berriarekin gertatzen den paradigma-aldaketa, eta ondoriozta daiteke behargabekoa dela erosketa publiko arduratsuaren legezkotasunari buruzko eztabaida juridiko oro. Esan behar da –eta hala ematen da aditzera, inongo interpretaziotarako zirrikiturik utzi gabe– arauak erabat babesten duela irizpide sozial eta ingurumenekoak kontratazio publikoan sartzea, eta areago, haien nahitaezkotasuna ezartzen duela.

Ikus dezakegunez, irizpide sozial eta ingurumenekoak sartu gabe kontratatzea litzateke legez kanpokoak, SPKLko 1.3. artikulua urratuko lukeelako; izan ere, halako irizpideak sartzea zeharkakoa eta aginduzkoa da. Artikulu hori, gainera, SPKLko 28.2 artikuluan sendotzen da:

28. artikulua. Kontratuaren premia eta egokitasuna, eta efizientzia kontratazioan.

2. Sektore publikoko erakundeek efizientzia eta erabakitako baldintzak betetzen direla begiratuko dute kontratazio publikoko prozesuak gauzatzeko orduan, izapideak ahalik eta lasterren egiten lagunduko dute, kontratazio publikoaren prozeduretan alderdi positibo gisa hartuko dituzte kontsiderazio sozialak, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak, eta enpresa txiki eta ertainek parte hartzea eta informazioa kosturik gabe eskuratzea sustatuko dute, lege honetan aurreikusitako eran.

Eta, gainera, legearen atarikoan (V. ataleko bosgarren paragrafoan) bidezko merkataritza berriaz aipatzen da; honela, hain zuzen:



«Gainera, giza eskubideekiko errespetuari eta bereziki garapen-bidean dauden herrialdeetako langileen eta ekoizle txikien eskubideekiko errespetuari bide emateko asmoz, aukera bat sartzen da bai adjudikazio-irizpideek, bai exekuziorako baldintza bereziek ekoizpen -eta merkaturatze- prozesuko alderdi sozialak jaso ditzaten kasuan kasuko kontratuaren arabera egin beharreko obretan, horniduretan edo zerbitzuetan; eta, bereziki, eskatu ahalko da prozesu horrek bete ditzala bidezko merkataritza eta garapenari buruzko Europako Parlamentuaren Ebazpenak (2005/2245(INI)) 2. apartatuan ezartzen dituen bidezko merkataritzaren printzipioak».

Laburbilduz, Administrazio publiko orok irizpide sozialak eta ingurumenekoak «sartuko» ditu (aginteran) «kontratazio publiko orotan, zeharkako eta aginduzko eran». Eta, gainera, «alderdi positibo gisa hartuko» du halakoak sartu izana.

Ohar bedi, orobat, erosketa publiko arduratsua etikaren, justizia sozialaren, jasangarritasunaren, ekitatearen edo oinarritzko giza eskubide eta lan-eskubideen ikuspuntutik aldezteaz gain, badagoela argudiatzea Kontratuaren Legeak berak dioela kalitate-prezio erlazio hobea emango duela kontratu- prestazioan, bai eta efizientzia handiagoa eta hobea ere funts publikoen erabileran.

Kontratuaren objektuaren definizioa

KONTRATUAREN OBJEKTUA GIZARTE ETA INGURUMEN-ERANTZUKIZUNEKO IRIZPIDEekin DEFINITZEA

Bete nahi diren beharrian eta funtzionaltasunak zehatz definitu behar ditu kontratuaren objektuak. Edo hizkera lauagoan esanda: zer kontratatuko den deskribatu behar du.

Hemen egin beharreko galdera egokia da ea, kontratu baten objektua definitzean – kafetegi-zerbitzu batena, esaterako –, objektu hori honela definitzea posible eta legezko litzatekeen: «bidezko merkataritzako produktuekiko kafetegi-zerbitzua».

Edo, lorezaintza-zerbitzuko uniforme hornidura lizitatzean, posible ote den kontratuaren objektuari izenburu eta definizio hau ematea: «uniforme-erosketa, hornidura-kate guztian zehar lan- eta soldata-baldintza duinetan ekoitzi izana bermatuta».

Erantzuna erraza eta biribila da: legezkoa ez ezik, kontratu publikoei buruzko legedian berariaz jasota ere badago; izan ere, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 99.1 artikuluan esaten da kontratuaren objektua definituko ahalko dela konponbide bakar batera mugatu gabe, eta gehitzen du bereziki era horretan definituko direla berrikuntza sozial edo ingurumenekoak sartzeko moduko prestazioak.

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

1. Sektore publikoko kontratuen objektuak zehatza izan behar du. Objektu hori bete nahi diren beharrian edo funtzionaltasun zehatzei erreparatuta definitu ahalko da, kontratuaren objektua konponbide bakar batera mugatu gabe. Bereziki, kontratatzen diren ondasun, obra edo zerbitzuen efizientzia eta jasagarritasuna hobetzen duten berrikuntza teknologiko, sozial edo ingurumenekoak sar daitezkeela uste den kontratuetan definituko da modu horretan.

Era berean, 35. artikuluan, kontratu baten formalizazioan jaso behar den gutxieneko edukia ezartzean, berriz esaten da formalizazioan kontsiderazio sozial eta ingurumenekoak adieraziko direla.

35. artikulua. Kontratuaren gutxieneko edukia.

1. Sektore publikoko erakundeek kontratuak egiteko erabiltzen dituzten agiriek, jada baldintza-agirietan jasota ez badaude, honako aipamen hauek jaso beharko dituzte nahitaez:

- c)** Kontratuaren objektuaren eta motaren definizioa, objektuaren definizioan kontsiderazio sozial, ingurumenekoak eta berrikuntzakoak kontuan hartuta.

Arauk aukera ematen du kontratuaren objektua berrikuntza sozial eta ingurumenekoekin zehazteko, eta aginduzkoa ere bada («definituko da») zenbait kasutan («sar daitezkeela uste den kontratuetan»). Horrez gain, kontratuaren objektuarekiko lotura errepikatzen den gai bat da legean; hortik haren garrantzia.

KONTRATUAREN OBJEKTUAREKIKO LOTURA

Kontratuaren objektuarekiko behar den lotura hainbat aldiz ageri da Kontratu Publikoen Legeko artikuluetan. Hona hemen erreferentzia nagusietako batzuk.

- **126.2 artikulua** (Baldintza teknikoak). 2. Eskatutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak produzitzeko edo emateko prozesu edo metodo zehatzari buruzkoak izan ahalko dira preskripzio teknikoak, [...] betiere, kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute [...].
- **127. artikulua** (Etiketak). 2.a). Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik [...].
- **142.1 artikulua** (Aldaerak). [...] kontratazio-organoak kontuan hartu ahalko ditu lizitatzailleek aurkeztutako aldaerak, baldin eta baldintza-agirietan aldaerak aurreikusten badira. Haien gutxienerako baldintzak, modalitateak, [...] eta kontratuaren objektuarekiko behar duten lotura adierazten direnean iritziko zaio baldintza hori betetzen dela.
- **145.2 artikulua** (Adjudikatzeko irizpideak). Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak.
- **147.1 artikulua** (Berdinketa ebazteko irizpideak). Berdinketa ebazteko adjudikazio-irizpide berriazko horiek kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute.”
- **202.1 artikulua** (Egikaritzeko baldintza bereziak). Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik [...].

Kontratuaren objektuarekiko loturari dagokionez, arauan garrantzizko aldaketa izan dela ohartarazi behar da: aurreko legedian eragozpen juridikoak zeuden erantzukizun sozialeko irizpideak sartzea baloratzeko, esate baterako, eskola-jantoki bateko janari-hornidurako zerbitzurako. Argudio juridikoa zen kontratuaren objektu jakin eta zehatza janari-hornidura zela eta, beraz, ez zela legezkoa enpresaren erantzukizun sozialaren inguruko alderdiak baloratzea kontratua gauzatzean, ez eta haren lan-politikak ere, ez baitzeuden zuzenean loturik kontratuaren objektuarekin.

Alabaina, 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuan jasotako baldintza hori ez da gehiago indarrean; hain zuzen, 150.1 artikuluan hau ezartzen zuen: **“kontratuaren objektuari zuzenean dagozkion irizpideak hartuko dira kontuan”**. Izan ere, interpretazio murrizgarri hori kontratazio publikoari buruzko 2014ko otsailaren 26ko 2014/24/EB Zuzentarauan aztertu eta ebatzi zen, eta testu hori hitzez hitz sartu da Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legean, 145.6 artikuluan zehazki, gaia behin betiko erabakita utzi dela. Arau berriarekin, kontratuaren objektuarekiko lotura SPKLko 145.6 artikulua arabera ezartzen da:

145. artikulua. Kontrata adjudikatzeko baldintzak eta irizpide-motak.

6. Honako kasu honetan egongo da loturik adjudikazio-irizpide bat kontratuaren objektuarekin: adjudikazio-irizpidea kontratu horren indarrez eman behar diren prestazioei dagokienean edo haiek integratzen dituenean, edozein alderditan eta bizi-zikloko edozein etapatan, horren barnean direla honako prozesu hauetan esku hartzen duten faktoreak:

- a)** Obren, horniduren edo zerbitzuen produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, erreferentzia berezia eginez ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta zuzenak diren produkzio-, prestazio- edo merkaturatze-moduei.
- b)** edo bizi-zikloaren beste etapa bateko prozesu zehatzean parte hartzen duten faktoreak, baita faktore horiek substantzia materialaren zati bat ez direnean ere.

Ondorio juridikotzat, esan behar dugu ez dela beharrezko betekizuna kontratuaren objektuan bidezko merkataritza berariaz aipatzea, 145.6 artikuluko legeko definizio hertsia arabera, alderdi hori objektuari berez loturik baitago.

Hala eta guztiz ere, legeko betekizuna ez den arren, gure kasuan bai, aholkatu egiten dugu kontratuaren objektua defini dadila egokitzat jotzen diren erantzukizun eta jasagarritasunezko ezaugarriak aipatuz, horrek hiru balio eranstean ditu eta.

Kontratuen araudiak aukera ematen digu kontratu-objektuaren izenburuan eta definizioan erreferentzia sozialak sartzeko. Xedea ez da catering-zerbitzu bat kontratatzea, bidezko merkataritzako produktuak dituen catering-zerbitzu bat baizik.

- 1.** Prozedurari gardentasuna ematen dio, lizitatzailerek aurretiaz ezagutzen dituztelako prestazioaren eduki eta betebeharrak sozialak.
- 2.** Klausula sozialei eta ingurumen-arloko klausulei indar eta balio handiagoa ematen die, haien garrantzia kontratuaren objektuan bertan ematen delako aditzera.
- 3.** Mezu argia ematen du Administrazio publiko kontratatzailearen koherentziaz eta sentsibilizazioaz.

JARDUNBIDE EGOKIEN ADIBIDEAK

Contrato de prestación servicio de catering para los eventos y reuniones de la AECID

1. OBJETO DEL CONTRATO

El objeto del contrato es la prestación del Servicio de catering de las reuniones y eventos de las distintas Unidades de la Agencia Española de Cooperación Internacional para el Desarrollo (AECID).

Tal y como se recoge en el art. 202.1 de la Ley 9/2017, de 8 de noviembre, de Contratos del Sector Público, será obligatorio el establecimiento en el pliego de cláusulas administrativas particulares, de al menos una de las condiciones especiales de ejecución, entre las que se encuentran, condiciones económicas, relacionadas con la innovación, de tipo medioambiental o de tipo social.

Dentro de la actividad propia de la AECID, se encuentra promover actividades y productos de comercio más equitativo y sostenible, sobre todo en la búsqueda de relaciones comerciales más justas con los países del Sur. Para ello, se realiza la licitación del servicio de cafetería donde se utilicen productos de comercio justo, que fomente las relaciones de cooperación de la Agencia con los países del Sur. La finalidad es el fomento de los objetivos de comercio justo y desarrollo sostenible, así como criterios de calidad social y ambiental.

En el art. 202.2, establece como consideración de tipo social o relativos al empleo, garantizar el respeto a los derechos laborales básicos a lo largo de la cadena de producción mediante la exigencia del cumplimiento de las Convenciones fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo, incluidas las que busquen favorecer a los pequeños productores de países en desarrollo, con los que se mantienen relaciones comerciales favorables tales como el pago de un precio mínimo y una prima a los productores o una mayor transparencia y trazabilidad de toda la cadena comercial.

Respecto de los productos de comercio justo a suministrar, deberán seguir los criterios y principios definidos en la **Resolución del Parlamento Europeo sobre Comercio Justo y Desarrollo (2005/2245 INI)**, donde se fomenta el consumo de productos de comercio justo en los países de la Unión Europea.

A tenor de la Resolución 2005/2245, se entiende como productos de comercio justo, cuando están producidos y comercializados bajo condiciones de respeto a los derechos laborales básicos y protección del medio ambiente.



Garapenerako Nazioarteko Lankidetzaren Espainiako Agentziaren baldintza-agiri honetan, kontratuaren objektuaren izenburuan eta definizioan bidezko merkataritza aipatzeaz gain, espedientearen zein bete nahi diren beharizanen oso justifikazio interesgarria egiten du, bidezko merkataritzaren, helburuen, baldintzen eta onuren deskripzio juridiko eta kontzeptual batekin.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HAN DE REGIR EN EL CONTRATO MIXTO DE SUMINISTRO Y SERVICIOS PARA LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO INTEGRAL DE ILUMINACIÓN EXTERIOR DEL MUNICIPIO DE MANZANARES EL REAL CON CRITERIOS DE RESPONSABILIDAD SOCIAL CORPORATIVA EN MEDIO AMBIENTE, PROTECCIÓN LABORAL, CONCILIACIÓN FAMILIAR, PROTECCIÓN A LA MUJER Y A PERSONAS CON CAPACIDADES DIFERENTES.



Eta Manzanares el Realeko Udalaren baldintza-agiri hau eredugarria da erosketa arduratsurako, izenburuan eta kontratuaren objektuan bertan ezartzen duelako ez dela argiztapeneko hornidura- eta zerbitzu-kontratu bat bakarrik, erantzukizun sozial korporatiboko irizpide batzuk betez ere gauzatu behar dela kontratu hori, ingurumenaren, lan-babesaren, genero-berdintasunaren, kontziliazioaren zein aniztasunaren arloetan.

KONTRATU EGOKIAK EROSKETA ARDURATSUKO IRIZPIDEAK ETA EKOIZPEN-, BANAKETA- ETA KONTSUMO-KATEAREN INGURUKO IRIZPIDEAK SARTZEKO

Gauza jakina ematen du, baina, ekoizpen-baldintzen eta hornidura-kateen inguruan arlo sozialeko eta ingurumeneko irizpideak sartzean, betiere prestazioaren edukia eta ezaugarriak aintzat hartu behar dira.

Ez du zentzurik izango hornidura-katea eta ekoizpen-baldintzak aipatzeak ingeniari-tza-proiektu bat idazteko laguntza teknikoaren kontratu batean, ez eta prestakuntza-ikastaro baten kontratuan ere. Baina badira kontratu-objektu eta -prestazio asko bereziki egokiak direnak halako irizpideak sartzeko, eta Administrazio publikoei kontratu horiek identifikatzea errazago egiteko xedez, hain zuzen ere, berariaz aukerakoak diren hainbat objekturen zerrenda bat proposatzen dugu; izan ere, berez loturik daude ekoizpen-baldintzen eta hornidura-kateen inguruko erantzukizuneko irizpideak aplikagarriak izango litzaizkiekeen produktu, hornidura eta zerbitzuekin:

- › **Elikagaiak:** kafea, tea, azukrea, txokolatea, arroza, laboreak, marmeladak, eztiak, espeziak, fruitu lehorrak, edariak, *snack*ak, galletak, likoreak, pasta, mostaza.
- › **Artisautza:** altzariak, dekorazio-gauzak, imitaziozko bitxiak, osagarriak, etxeko gauzak, panpinak, jostailuak.
- › **Paper-gauzak:** txartelak, koadernoak, karpetak, boligrafoak, arkatzak.
- › **Ehungintza:** kamisetak, bufandak, eskularruak, zapiak, motxilak, poltsak, jantziak, uniformeak.
- › **Norbera zaintzekoak:** xaboia, gela, xanpua, kremak, desodorantea, *after shave*a, haurren lerroa.

- › Ospitale, egoitza, haur-eskola, **jantoki sozial edo eskola-jantokien janari-hornidura**.
- › Kanpaina, jardunaldi edo kongresuetarako bidezko merkataritza **poltsa serigrafiatuen hornidura**.
- › Jardunaldi, kongresu eta ekitaldi instituzionaletako kafe-etenetarako **catering-zerbitzua**.
- › Lehiaketa, sariketa eta kongresuetako artisautzako **produktu-sortak**.
- › Kirol-ekitaldietarako (herri-lasterketak eta lasterketa sozialak kasu) eta sentsibilizazio-ekintzetarako **kamiseten hornidura**.
- › Eraikin publikoetan edari hotz eta beroak eta aperitiboak saltzeko **makinak instalatzea eta kudeatzea**.
- › **Merchandising-hornidura**.
- › **Gabon-saskiak**.
- › **Protokolozko opariak**
- › Instalazio publikoen zentroetako taberna-, **kantina- eta/edo jantoki-zerbitzuak** bidezko merkataritzako produktuekin.
- › **Uniformeen** eta, oro har, ehungintzako produktuen **hornidura**.
- › **Gailu elektronikoaren hornidura**: ordenagailu finko eta eramangarriak, telefono mugikorrek, tabletak, telefono adimendunak eta, orobat, datuak prozesatzeko ekipamenduak, informazioa biltegitratzeko unitateak nahiz kamera digitalak, monitorea, proiektagailuak edo irratiak eta telebistak.

Produktu edo hornidura arduratsuen sortak

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legean berariaz aipatzen da sortaka zatitzeko aukera; 99. artikuluan, zehazki.

99. artikulua. Kontratuaren objektua.

3. Kontratuaren izaerak edo objektuak horretarako bidea ematen duten guztietan, atal guztiak modu independentean gauza daitezela aurreikusi beharko da, sortaka zatituta. Sortak erreserbatu ahalko dira, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera.



Aurrekoa gorabehera, kontratazio-organoak aukera izango du kontratuaren objektua sortaka ez zatitzeko horretarako arrazoi egokiak daudenean –espedientean behar bezala zehaztu beharko dira horiek–, salbu eta obra-emakidako kontratuetan.

4. [...] Kontratazio-organoak, kontratuaren objektua sortaka zatitzen duenean, honako muga hauek ezarri ahalko ditu, betiere espedientean egoki justifikatuta:

- a)** Hautagai edo lizitatzailerak eskaintza aurkeztu ahal duen sorta kopurua mugatu ahalko du.
- b)** Halaber, lizitatzailerak bakoitzari adjudikatu ahal zaion sorta kopurua mugatu ahalko du.

[...]

Sortetako bat edo batzuk erreserbatu ahalko dira enplegu-zentro berezietarako edo laneratze-enpresetarako, edo, bestela, kontratu horiek egikaritzeko erreserbako gutxieneko ehuneko bat ezarri ahalko da enplegu babestuko programetarako, laugarren xedapen gehigarrian xedatutakoari jarraituz. Halaber, sortak erreserbatu ahalko dira berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian aipatzen diren erakundeentzat, aipatutako xedapenean ezarritako baldintzetan.

Sorta edo loteak ezartzeko helburua da kontratazio publikoa enpresa gutxi batzuen oligopolioa izan dadin eragozte. Hala, loteak ezarririk, kontratu publikoen adjudikazioa lortzeko aukera errazten da enpresa txiki eta ertainentzat, bai eta enplegu-zentro berezientzat, laneratze-enpresentzat eta ekonomia sozialeko gainerako enpresentzat ere.

Kontzeptua sinplea da: kontratu bakarra lizitatu eta adjudikatzen bada, enpresa txikiek aukera gutxi dute, baina kontratu bat zatikatu, eta enpresa bakoitzak sorta batean bakarrik parte hartu edo adjudikazioa lortu ahalko duela mugatzen bada, enpresa txikien aukerak gehitu egiten dira, baita ugaritu ere.

Arauan izan den aldaketa nabarmena da oso; izan ere, aurreko legediarekin ezin zen kontratu publiko bat zatitu, eta orain ahal da; eta are gehiago, edozein kontratu sortatan zatitu behar da, unitate funtzional, kuantitatibo edo geografikotan zatitzeko modukoa denean, edo bereiz erabil, eman edo egikaritzeko zatitan. Sortak egitea da araua, eta ez badira egiten, espedientean justifikatu egin behar da.

Sorta edo loteak ezartzeko aukeraren berritasuna eta interesa direla eta, haien alderdi garrantzitsuenak laburbilduko ditugu:

- 1.** Sortatan zatitzea arau orokorra da, eta ez salbuespena. Hain zuzen ere, obra publikoa emateko kontratuan izan ezik, kontratua sortaka banatzen ez bada, kontratazio-organoak behar bezala justifikatu behar du espedientean.
- 2.** Legezkoa da sorta edo loteen tamaina eta kopurua erabakitzea.

3. Legezkoa da enpresa berarentzat sorten kopurua mugatzea, aurkez dadin eta/edo adjudikaziodun irten dadin.
4. Legezkoa da sorta bat edo gehiago erreserbatutzat ezartzea, enplegu-zentro bereziak, laneratze-enpresak edo, kasua denean, ekonomia sozialeko enpresa eta entitateak haietara aurkez daitezen.

Aukera hau -sortatan zatitzeko, haietako batzuk erreserbatzeko eta enpresa bera aurkeztu ahal den edo adjudikaziodun irten ahal den sorten kopurua mugatzeko- oso interesgarria izan daiteke erantzukizun sozialeko irizpideak sartzeko zenbait lizitazio publikotan. **Hona hemen kasu batzuk adibidetzat:**

- Zenbateko handikoa den eta hainbat produktu barne hartzen dituen kontratu bat zatitzea, sortetako bat nahitaez bidezko merkataritzakoa izatea ezarrita.
- Bulego-altzariz hornitzeko kontratu bat zatitzea, sortetako batean ezarrita zur guztiak baso berriztagarrietatik etorri behar duela eta FSC etiketa edo baliokide bat izan behar duela.
- Sortatan eta zerbitzu-kopuruaren arabera zatitzea Administrazio-publiko baten ekitaldi instituzionaletarako catering-zerbitzua. Eta, horrela, sortetako bat edo batzuk ekonomia sozialeko enpresa eta entitateentzat (kooperatibak, fundazioak eta elkarteak) erreserbatutzat izendatu ahalko dira, sorta horretara halako entitateak bakarrik aurkeztu ahal izateko, eta adjudikaziodun irten.
- Udal-pertsonalaren lan-arropaz hornitzeko kontratu bat sortatan zatitzea eta ezartzea lotetako batean (adibidez, kamisetak, izerditakoak, etab.) eskaintzei baloratu egingo zaiela hornidura-kate guztian Lanaren Nazioarteko Erakundearen konbentzioak errespetatu direla egiaztatzen duen ziurtagiri bat izatea.
- Telefono mugikorrez hornitzeko kontratu bat sortatan zatitzea eta, sorta jakin baterako (20 telefono mugikor), egikaritzeko baldintzat -edo zehaztapen teknikotzat- ezartzea ziurtagiri bat aurkeztu beharko dela, telefonoak fabrikatzeko erabili diren mineralek hornidura-katearen kudeaketa arduratsurako sistema bat badutela egiaztatzeko.
- Administrazio publiko baten opari instituzionaletarako hornidura-kontratu bat zatitzea, artisautzako produktuz osaturiko sorta bat sortzea, eta sortetako baterako eskatzea jatorria ziurtatu beharko dela, eta ekoizpen-kate guztian zehar giza eskubideak bete izana bermatu.
- Azkenik, halaber, edozein hornidura-kontratutan posible izango litzateke berariazko sorta bat ezartzea, «gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak bete beharreko hornidurakoa», eta horrela sorta horretarako bakarrik baloratzea ekoizpen-moduak, lan- eta soldata-politikak, emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako neurriak, edo enpresak EESko (enpresaren erantzukizun soziala) ziurtagiri bat izatea eta aplikatzea, besteak beste.

JARDUNBIDE EGOKIEN ADIBIDEAK

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TECNICAS PARA LA CONTRATACION POR PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SUMINISTRO DE PRODUCTOS DE ALIMENTACIÓN PARA LAS RESIDENCIAS MUNICIPALES DE PERSONAS MAYORES DEPENDIENTES DEL DEPARTAMENTO DE POLÍTICAS SOCIALES Y SALUD PÚBLICA DEL AYUNTAMIENTO DE VITORIA-GASTEIZ.

Lote 29 - Productos de comercio justo

29001 - Café molido mezcla	Paquete de ¼ kilo	1,93 €
29002 - Chocolate en polvo a la taza	Paquete de 1 kilo	5,98 €
29003 - Azúcar de caña blanca Costa Rica	Paquete de 1 Kilo	2,43 €
29004 - Té negro Ceylan	Caja de 20 bolsas de 40 gramos	2,04 €



Vitoria-Gasteizko Udalaren kontratu hau 34 sortatan banandurik dago, eta haren bidez erraz uler dezakegu nola ezarri bidezko merkataritzako produktuen berariazko sorta bat.

CLÁUSULAS ESPECÍFICAS DEL CONTRATO

I.- CARACTERÍSTICAS DE LA PRESTACIÓN.

1.- OBJETO DEL CONTRATO.

1.1.- Definición: Suministro de material de oficina y papel de impresora

Lote 2 (Papel de impresora):

Precios máximos (IVA incluido)

Paquete 500 hojas de Papel Económico, Opacidad estándar, blanca 70 %, 75 gr de gramaje, A4	4 euros
Paquete 500 hojas Papel gramaje 80gr, blanca 96 % o superior, mayor opacidad, A4	5 euros
Paquete 500 hojas Papel Reciclado 100% con certificados ecológicos tipo Angel azul o similar	3,50 euros
Paquete 500 hojas Papel color azul celeste, A4, 80 grs	6,50 euros
Paquete 500 hojas Papel multifuncional, A3, 80 grs	6 euros



Eusko Jaurlaritzaren baldintza-agiri honetan, bulego-material bezala hornitzeko kontratu bat sortatzen da, eta sortetako batean berariaz ezartzen da inprimagailu-paperaren zati batek birziklatua izan beharko duela, eta ziurtagiri ekologikoak izan beharko dituela.

PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EN EL CONTRATO DE: SUMINISTRO DE ALIMENTOS Y PRODUCTOS DE LIMPIEZA E HIGIENE PARA LAS ESCUELAS INFANTILES MUNICIPALES DE EDUCACIÓN INFANTIL DEL AYUNTAMIENTO DE MOLINA DE SEGURA, INCORPORANDO CONDICIONES ESPECIALES DE EJECUCIÓN DE TIPO MEDIOAMBIENTAL Y OTRAS, MEDIANTE LOTES, A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO.

Número y denominación de los lotes:

LOTE I: FRUTAS Y VERDURAS.

LOTE II: ULTRAMARINOS.

LOTE III: CONGELADOS.

LOTE IV: CARNICERÍA Y POLLERÍA.

LOTE V: LÁCTEOS.

LOTE VI: PANADERÍA.

LOTE VII: PRODUCTOS DE LIMPIEZA E HIGIENE.

2. CRITERIOS ÉTICOS Y MEDIOAMBIENTALES: Se valorará con 20 puntos aquella oferta que incluya mayor número de productos procedentes de agricultura ecológica y/o Comercio Justo, valorándose el resto proporcionalmente. Estos productos deberán especificarse convenientemente en el modelo de oferta presentada y acompañar las etiquetas o certificados que demuestren la procedencia de agricultura ecológica de los mismos. En el caso de productos provenientes de Comercio Justo serán acreditados a través de la marca WFTO (World Fair Trade Organization) que avala a entidades; mediante la garantía del Sello FLO (Fair Labelling Organization/Organización del Sello de Comercio Justo), que certifica productos, o a través de cualquier certificación equivalente.

- La oferta con mayor número de productos procedentes de agricultura ecológica o comercio justo: 20 puntos.
- Resto de las ofertas: Puntos = (número de productos procedentes de agricultura ecológica o comercio justo de la oferta que se analiza / mayor número de productos procedentes de agricultura ecológica o comercio justo)x20



Molina de Segurako baldintza-agiri honetan, kontratua sortatan banatu, eta nekazaritza ekologikoko eta bidezko merkataritzako produktuak sartzea baloratzeko irizpideak ezartzen dira.

Preskripzio edo zehaztapen teknikoak

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko 125. eta 126. artikuluek preskripzio teknikoetarako buruzkoak dira.

125. artikulua. Preskripzio tekniko batzuen definizioa.

Lege honen ondorioetarako, termino hauek honela ulertuko dira:

1. «Preskripzio edo zehaztapen teknikoak»:

a) Obra-kontratuak direnean, nagusiki kontratazioaren baldintza-agirietan jasotako preskripzio teknikoaren multzoa, material, produktu edo hornidura bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituztenak eta aukera ematen dutenak haren taxuera zehazteko, botere adjudikatzailerak nahi duen erabilerari erantzun diezaien; era berean, kalitatea ziurtatzeko prozedurak; material horien inpaktu soziala, lanekoa, ingurumenekoa edo klimatikoa; haien prestaketan edo erabileran garatzen diren produktu edo jarduerak; beharrezan guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoak); terminologia, sinboloak, frogak eta frogatzeko metodoak; ontziratzea, markatzea eta etiketatzea; erabiltzeko jarraibideak eta ekoizpen-prozesuak eta -metodoak, obren bizi-zikloko fase guztietan; [...]

b) Hornidura- edo zerbitzu-kontratuak direnean, produktu edo zerbitzu bati eskatzen zaizkion ezaugarriak definitzen dituen agiri batean jasotako zehaztapena; esate baterako, kalitate-mailak, portaera-mailak ingurumen eta klima aldetik, beharrezan guztietarako diseinua (horren barnean direla irisgarritasun unibertsala eta diseinu unibertsala edo pertsona guztientzakoak) eta adostasunaren ebaluazioa, etekina, produktuaren erabilera, haren segurtasuna edo neurriak; horrekin batera, alderdi hauei dagokienez produktuari aplikatu beharreko eskakizunak: salmentarako izena, terminologia, sinboloak, frogak eta frogatze-metodoak, ontziratzea, markatzea eta etiketatzea, erabilerarako jarraibideak, ekoizpen-prozesuak eta -metodoak horniduraren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren edozein fasean, bai eta adostasuna ebaluatzeko prozedurak ere.

126. artikulua. Preskripzio teknikoak ezartzeko arauak.

1. 123. eta 124. artikuluek aipatzen dituzten preskripzio teknikoek aukera emango diete enpresaburuei berdintasun-baldintzetan sar daitezkeen kontratazio-prozeduran, eta, ondorioz, ezin izango diote justifikaziorik gabeko oztoporik jarri kontratazio publikoa lehiakideei zabaltzeari.

+

2. Eskatutako obrak, hornidurak edo zerbitzuak produzitzeko edo emateko prozesu edo metodo zehatzari buruzkoak izan ahalko dira preskripzio teknikoak, edo haien bizi-zikloko beste fase bateko prozesu zehatz bati buruzkoak -148. artikuluan ezarritako definizioari jarraituz-, baita faktore horiek obren, horniduren eta zerbitzuen substantzia materialekoak ez direnean ere; betiere, kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute eta proportzionalak izan beharko dute haren balioarekiko edo helburuekiko.

4. Kontratuaren objektuak ingurumenen eragiten badu edo eragin badezake, ingurumen-iraunkortasunaren eta -babesaren irizpideak aplikatuta definituko dira preskripzio teknikoak, Kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko uztailaren 1eko 16/2002 Legearen 3. eta 4. artikuluetan hurrenez hurren araututako definizioen eta printzipioen arabera.

5. Alde batera utzi gabe bete beharrekoak diren estatuko jarraibide edo erregelamendu teknikoak -Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarriak diren heinean-, preskripzio teknikoak ondorengo modu hauetako batean formulatuko dira:

a) Errendimenduaren edo betekizun funtzionalen arabera, horren barnean direla ingurumen-ezaugarriak, baldin eta parametroak behar bezain zehatzak badira lizitatzailerik kontratuaren objektua zehaztu ahal izateko eta kontratazio-organoak kontratua adjudikatu ahal izateko.

b) Honako hauek aipatuz, hurrenkera honetan: Europako arauetatik Estatuko arauetara ekarritako zehaztapen teknikoak, Europako ebaluazio teknikoak, zehaztapen tekniko komunak, nazioarteko arauak, europar normalizazio-organismoek egindako erreferentzia teknikoak buruzko beste sistema batzuk; edo, aurreko horiek guztiak ezean, arau nazionalak, egokitasun teknikoari buruzko agiri nazionalak, edo obren proiektuari, kalkuluari eta obrak egiteari eta hornidurak erabiltzeari buruz egindako zehaztapen tekniko nazionalak, aipamen bakoitzari «edo baliokidea» aipamena gehituz.

c) Errendimenduen edo betekizun funtzionalen arabera eta a) letran azaldutakoari jarraituz, b) letrako zehaztapenak aipatuz, errendimenduko baldintza horiekin edo betekizun funtzionalekin bat datoze-lako presuntzioa ezartzeko modu gisa.

d) Zenbait ezaugarri batzuetarako, b) letran aipatutako zehaztapen teknikoak aipatuz, eta, beste ezaugarri batzuetarako, a) letran aipatzen diren errendimendua eta betekizun funtzionalak aipatuz.


Kontzeptua eta haren aplikazioa azalduko dugu:

1. Kontratu publikoen legeak ezartzen du, obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzean, zehaztapen edo preskripzio tekniko jakin batzuk ezar daitezkeela, sozialak eta ingurumenekoak; horretarako, zenbait ezaugarri edo baldintza eskatu ahalko dira materialen, produktuen, sistemen, homologazioen, isurpenen, kontsumoen, errendimenduen eta abarren inguruan.

2. Horrez gain, berariaz ematen da aditzera zehaztapen edo preskripzio tekniko horiek ekoizpen-prozesu eta -metodoei buruzkoak izan daitezkeela, horniduraren edo zerbitzuaren bizi-zikloaren edozein fasetan, bai eta adostasuna ebaluatzeko prozedurei buruzkoak ere.
3. Praktikara joanda: ordenagailuz hornitzeko kontratu batean, eskatzen diren gutxienerako baldintzei buruzko zehaztapen teknikoak egongo dira ziur asko, hala nola 23 hazbeteko pantaila, 8 GBko RAM memoria, edo 1 TBko disko gogorra.

Era berean, udal-kiroldegiko kafetegiaren kudeaketa lizitatzean, zehaztapen teknikoen artean ezar daiteke han zerbitzatutako kafe guztiak nahitaez bidezko merkataritzakoa eta ziurtagiri homologatuduna izan behar izatea.

Edo ordenagailuz hornitzeko kontratu batean eskatu ahalko da fabrikazio arduratsu bat, edo diseinu ergonomiko bat, edo energia-eraginkortasuna izan ditzatela, edo egiazta dezatela substantzia toxiko edo arriskutsurik ez izatea, edo hornidura-kate guztian zehar oinarritzeko lan-eskubideak errespetatu izana.



AJUNTAMENT DE VALÈNCIA

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE DEBE REGIR EN LA CONTRATACIÓN DE LA PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE ALIMENTACIÓN, CON CRITERIOS DE SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL Y SOCIAL, EN LOS CASALES D'ESPLAI MUNICIPAL EL SALER DE VALÈNCIA Y L'HORTA DE ROCAFORT.

e) Producto de Comercio Justo.

Para garantizar la calidad social, el café, el cacao y los edulcorantes, excepción hecha de la miel, que se utilicen en la elaboración de los menús de los Casales, deberán satisfacer los criterios de Comercio Justo.

Se define como producto de Comercio Justo todo aquel producto alimentario que cumpla los requisitos previstos al punto 2 de la Resolución del Parlamento Europeo de 6 de julio de 2006, sobre Comercio Justo y desarrollo (2005/2245(INI)), o estándar equivalente.

Se presume que reúnen este requisito los productos que gozan de una certificación de Comercio Justo (por ejemplo Fairtrade, de FLO), o hayan estado importados y distribuidos por una organización de Comercio Justo, certificada por la WFTO (World Fair Trade Organization). El cumplimiento de este requisito puede acreditarse por cualquier otro medio de prueba apropiado consensuado con el Servicio de Juventud del Ayuntamiento de Valencia.



Valentziako Udalaren preskripzio edo baldintza teknikoen agirian produktuak bidezko merkataritzakoak izatea ezartzen da zehaztapen tekniko gisa, haien kalitate-estandarrak definitzen dira, eta dagozkien baldintzak eta ezaugarriak betetzen direla egiaztatzeko sistema ezartzen da.



Contrato para el suministro en modalidad de arrendamiento de ordenadores de sobremesa

2. Requisitos técnicos – ORDENADOR TIPO 1

Se establece un ORDENADOR TIPO 1, cuyos requisitos son:

- 2.18 Conformidad con etiquetas, regulaciones y criterios de fabricación socialmente responsable, ergonómicos, de consumo de energía eficiente, reducción de sustancias peligrosas, y de sostenibilidad de ciclo de vida: requerida la conformidad con ENERGY STAR, EPEAT, RoHS y TCO Certified, o equivalentes.



Sant Joan d'Alacanteko Udalaren agiri interesgarri honetan, baldintza tekniko (preskripzio tekniko) konbinatuak ezartzen dira irizpide sozialak eta ingurumen-irizpideak aintzat hartuta, eta etiketa jakin batzuk ere eskatuta.

Erantzukizun sozialeko etiketak eta ziurtagiriak

Etiketa sozialak eta ekologikoak berariaz araututa daude Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko **9/2017 Legeko 127. artikuluan**, eta arauketak garrantzizko aldaketak dakartza.

127. artikulua. Etiketak.

1. Lege honen ondorioetarako, «etiketa» da kasuko obrek, produktuek, zerbitzuek, prozesuek edo prozedurek zenbait baldintza zehatz betetzen dituztela berresten duen edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri.
2. Kontratazio-organoek, ezaugarri bereziak -ingurumen arlokoak, sozialak edo bestelakoak- dituzten obrak, hornidurak edo zerbitzuak eskuratzeko asmoa dutenean,



berriazko etiketa bat eskatu ahalko dute preskripzio teknikoetan, adjudikatzeko irizpideetan edo kontratua egikaritzeko baldintzetan, obrek, zerbitzuek edo hornidurek eskatutako baldintzak betetzen dituztelako frogabide gisa: etiketa sozial edo ingurumenekoak, nola baitira nekazaritza edo abeltzaintza ekologikoarekin, bidezko merkataritzarekin edo genero-berdintasunarekin lotutakoak, edo Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak. Halakoak eskatzeko, betiere, baldintza hauek guztiak bete beharko dira:

- a)** Etiketa lortzeko eskatutako baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izatea bakarrik, eta egokiak izatea objektu hori osatzen duten obren, horniduren edo zerbitzuen ezaugarriak definitzeko.
- b)** Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzen oinarria objektiboki egiaztatzen ahal diren irizpideak izatea, diskriminatzaileak ez direnak.
- c)** Etiketak prozedura ireki eta garden baten arabera hartzea, zeinetan zerikusia duten alderdi guztiek parte hartzen ahalko duten, hala nola gobernuko erakundeek, kontsumitzaileek, gizarte-solaskideek, fabrikatzaileek, banatzaileek eta gobernuz kanpoko erakundeek.
- d)** Etiketak interesdun guztien eskura egotea.
- e)** Etiketa lortzeko eskatzen diren baldintzak hirugarren batek jarriak izatea, hau da, enpresaburuak modu erabakigarrian ezin eragin diezaiokkeen batek jarriak.
- f)** Etiketei buruzko erreferentziek berrikuntza ez murriztea.

Etiketa batek 2. apartatuko b), c), d) eta e) letretako baldintzak betetzen dituenean baina kontratuaren objektuarekin loturarik ez duten baldintzak ezartzen dituenean, kontratazio-organoek ez dute eskatuko etiketa, baina, haren ordez, preskripzio teknikoak etiketa horretako zehaztapen xeheen arabera definitzen ahalko dituzte, edo, hala badagokio, haren zenbait zatiren arabera, kontratuaren objektuarekin lotuta badaude eta objektu horren ezaugarriak definitzeko egokiak badira.

3. Berriazko etiketa bat eskatzen duten kontratazio-organoek onartu beharko dituzte obrek, hornidurek edo zerbitzuek hura lortzeko eskatzen diren baldintzen baliokideak diren beste batzuk betetzen dituztela frogatzen duten etiketa guztiak. Kontratazio-organoak beste frogabide egoki batzuk onartuko ditu, 128. artikuluan aipatutakoak barne, kontratista izango denak eman beharreko obrek, hornidurek edo zerbitzuek berriaz eskatzen den etiketaren baldintzak betetzen dituztela frogatzeko balio badute.

4. Kontratazio-organoek, baldintza-agirietan ez badute esaten obrek, hornidurek eta zerbitzuek eskatzen diren baldintza guztiak bete behar dituztela etiketa bat lortzeko, adierazi beharko dute baldintza horietatik zeini buruz ari diren.

5. Preskripzio teknikoetan etiketa jakin bat adierazi arren, kontratazio-organoak baldintza-agirietan argi eta garbi zehaztu beharra dauka beti zer ezaugarri eta



baldintza ezarri nahi dituen, hau da, eskatutako etiketa zehatzarekin egiaztatu nahi diren ezaugarri eta baldintzak argi eta garbi zehazteko betebeharra dauka beti.

6. Baliokidetasuna frogatzeko karga, nolana ere, hautagaiak edo lizitatuak hartuko dute beren gain beti.

9/2017 Legean etiketa sozial eta ekologikoei buruz egiten den arauketa balio bikoitzekoa da; izan ere, kontratazio-organismoek frogabide objektibo eta egiaztagarria dute -konkurrentzia askea, tratu berdina eta diskriminaziorik eza bermatzen dituen, gainera- lizitazio-prozeduran. Eta enpresa edo entitate lizitatuaren aldetik, alderdi sozial batzuk legekotasun osoz aintzat har daitezkeen ahalbidetzen da, bai haien produktuen inguruan, bai haien ekoizpen-prozesuen inguruan.

Alderdi esanguratsuenak nabarmendu eta laburbildu behar dira:

- 1.** Etiketa kontzeptua bera zabala da, edozein agiri, ziurtagiri edo egiaztagiri baliozkoa baita.
- 2.** Produktu eta zerbitzuei buruzkoak izan daitezke, eta bai prozesu eta prozedurei berei buruzkoak ere, azken horiek fabrikaziokoak izan zein antolaketa eta kudeaketakoak izan.
- 3.** Preskripzio teknikoetatik, balorazio-irizpidetatik edo kontratua egikaritzeko baldintza berezitat erabil daitezke.
- 4.** Etiketak edo ziurtagiriak emateak irizpide objektibo, egiaztagarri eta ez-diskriminatzaileetan oinarritu behar du, erakunde independente batzuek era gardenean eman behar dituzte, eta enpresa interesdun guztien eskura egon behar dute.
- 5.** Halakoak lortzeko eskatzen diren baldintzak kontratuaren objektuarekin lotutako irizpideen ingurukoak izango dira bakarrik, eta egokiak izan beharko dute kontratatu nahi diren obrak, hornidurak edo zerbitzuak definitzeko.
- 6.** Baldintza-agirietan berariazko etiketa bat eskatu arren, hura lortzeko eskatutako baldintza berak (baliokideak) betetzen dituzten etiketa guztiak ere onartu beharko dira nahitaez, eta, areago, baldintza horiek betetzen direla egiaztatzen duen beste edozein frogabide ere onartuko da.

ZIURTAGIRI ETA ETIKETA SOZIAL ETA INGURUMENeko BATZUK

ZIURTAGIRIAK ETA ZIGILUAK

EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNA	ANIZTASUN FUNTZIONALA
	
<p>«Berdintasuna enpresan» bereizgarria Osasun, Gizarte Zerbitzu eta Berdintasun Ministerioak ematen duen bikaintasun-marka bat da. Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunerako politikak aurrera eramaten nabarmentzen diren enpresei ematen die aitormena. Badira zenbait zigilu baliokide, autonomia-erkidegoek emanak.</p>	<p>Zigilu honek bereizitako konpainiek desgaitasunarekin erantzukizun sozialez jokatzeko dute eta diskriminaziozko ezeko zein aukera-berdintasuneko politikak aplikatzeko dituzte hautaketarako, enplegua lortzeko, maila-igoerarako eta prestakuntzarako prozedura guztietan, komunikazioan, eta arriskuen prebetzioan, irisgarritasun unibertsala aplikatzeaz gain.</p>

ERANTZUKIZUN SOZIALEKO ZIURTAGIRIAK			
SA 8000	OHSAS 18001	ISO 26000	TCO CERTIFIED
			
<p>Lan-baldintzak egiaztatzen ditu, eta LANeren konbentzioetan, Giza Eskubideen Aldarrikapen Unibertsalean, eta Haurren Eskubideei buruzko Hitzarmenean oinarritzen da. Hornidura-kate guztian lan-jardunbide sozialki onargarriak egotea sustatzen du.</p>	<p>Laneko Segurtasuna eta Osasuna Kudeatzeko Sistema. Lan-esparruan gerta litezkeen arrisku guztiak prebenitzea eta kontrolatzea da helburu nagusia, eta etengabeko hobekuntzako prozesuek arriskuak minimiza ditzaten ziurtatzea.</p>	<p>Enpresa eta erakundeentzako erantzukizun sozialeko gida, gardentasunean eta kontu-ematean, jokabide etikoan, eta giza eskubideen errespetuan oinarritua.</p>	<p>Produktu informatikoentzako nazioarteko jasagarritasun-ziurtagiria. Produktuen fabrikazioa, erabilera eta birziklapena ingurumen-erantzukizun nahiz erantzukizun sozialeko irizpideekin gauzatzen direla bermatzen du.</p>

ZIURTAGIRI ETA ETIKETA EKOLOGIKOAK			
NEKAZARITZA EKOLOGIKOA	EKOIZPEN EKOLOGIKOA	ECOLABEL	EMAS
			

LAN-BALDINTZAK KONTROLATZEKO MEKANISMOAK. JANTZIEN ARLOA

Ehungintzari lotutako zenbait zigilu dauden arren (aurrerago esango dugu zein diren), uste dugu oraindik badagoela hobetzerik, gehienek ez baitute bermatzen ekoizpen-prozesu guztiaren gaineko begirada oso bat. Ildo horretan, egokia iruditzen zaigu nazioarteko Arropa Garbia Kanpaina-CCC deritzon sarearen jarrera; 250 sindikatu, GKE, lan-eskubideen aldeko erakunde, antolakunde feminista eta kontsumitzaile-elkarte baino gehiago barne hartzen ditu, eta ehungintza-industrian lan egiten duten emakumeen lan-baldintzak hobetzeko helburua du.

Egun dauden ziurtagiriei dagokienez, CCCren aburuz, ez dira beti tresnarik onenak industria honetarako, lan-baldintzak hobetzeko, ikuspegi sektorial bat behar baita eta arropa-marken jokabide korporatiboa hornidura-kate guztian aldatu beharra baitago, neurri sakonagoak harturik.

Batetik, ehungintzako produktu baten etiketa arazotsua da, hornidura-kate batean lan-estandarrek "ziurtatzeko" etiketa bat duen produktu bat aukeratzea eta sortzea ahalbidetzen dielako markei, gainerako hornidura-kate guztietan ohiko jarduera aurrera eramaten jarraitzen duten bitartean. Horrez gain, CCCk uste du ziurtagiriak ekoizpen-kate guztiari buruzkoa izan beharko lukeela, azpikontrataturiko fabrikak eta bitartekariak barne, eta, hortaz, ziurtagirien trazabilitatea ekoizpen-kate guztiarena litzateke.

Bestalde, egun dauden ziurtagiriek ez dute bermatzen langileei soldata duinak ordaintzen zaizkiela, eta hori funtsezkoa da Arropa Garbia Kanpainaren ikuspegitik.

CCCren iritziz, neurri bakartzat ikuskapenen bidezko zaintzan oinarritzen den ziurtagirien -sindikatu, langile eta GKE-ek parte hartu gabe- ez du behar bezala ebaluatzen fabriken egoera erreala, eta praktikan ez ditu hondamenak prebenitzen. Hala, esaterako, Ali Enterprise fabrika (Pakistan) SAI/SA8000 arauaren bidez ikuskatu zen, eta Tazreen eta Rana Plaza fabrikak (Bangladesh) BSCIren bidez ikuskatuta zeuden.

Hori argitu eta gero, ehungintzari loturik topa ditzakegun zigiluetako batzuk aipatuko ditugu banan-banan.

	<p>FAIR WEAR FOUNDATION. Lan Jardunbideen Kodea da oinarria. Kode horren muina zortzi lan-arauk osatzen dute, LANEren konbentzioetatik eta Nazio Batuen Giza Eskubideen Aldarrikapenetik eratorrita. Hori dela eta, FairWear Foundation fundazioaren Lan Jardunbideen Kodea nazioartean onartutako arau batzuetan oinarritzen da, hiru aldeko negoziazio batzuen bidez ezarrita.</p>
	<p>OEKO-TEX Standard 100. Egiaztapen-eredu independente bat da, ehungintzako lehengai, tarteko produktu zein azken produktuetarako, denetariko jantzietarako, etxeko eta oheko ehunkietarako eta jostailuetarako.</p>
	<p>Made in Green por OEKO-TEX. Made in Green ehungintzako etiketa independente bat da, eta ehungintzako produktuei aplikatu ahal zaie ingurumena errespetatzen duten materialekin eta prozesuekin fabrikatu direnean eta langileentzat lan-baldintza seguruak bermatu direnean.</p>
	<p>INGERU URDINA. Orientazioa ematen du ingurumenaren nahiz kontsumitzaileen segurtasunean oinarrituriko ehungintzako produktuen inguruan, eta horretarako bizi-ziklo osoa aintzat hartzen du, inpaktua murrizturik merkatuko, oro har, produktu eta zerbitzuen batezbestekoarekin alderaturik. Lau printzipio ditu oinarri: fabrikazioan ingurumen-arauak hobetzea; laneko segurtasuna eta osasuna hobetzea; produktuan substantzia kimiko kaltegarriak saihestea; eta erabilgarritasun on bat.</p>
	<p>Better Cotton Initiative delakoaren xedea da munduko kotoi-ekoizpena hobetzea bai ekoizleentzat, bai hazten den ingurumenarentzat, bai sektorearen etorkizunarentzat, Better Cotton salgai arrunt jasangarritzat garatuz.</p>
	<p>BLUE SIGN. Arau honek bost printzipio ditu oinarri: baliabideen produktibitatea; kontsumitzaileen segurtasuna; isuri atmosferikoak; ur-isurpenak; eta laneko osasuna eta segurtasuna. Aurreko alderdi horiek guztiak aintzat hartzen dituen ikuspegi holistikoa bat da bluesign® estandarra. Produktuak eta produktu-gamak ziurtatzen ditu, baina ez enpresak. Estandarrak fabrika baten ingurumen-jardun osoa aztertzen duenez, garrantziko arlo guztietan identifikatu eta kudeatu ahal dira hobetzeko neurriak.</p>
	<p>CRADLE TO CRADLE. Ikuspegi honek produktu baten diseinua eta produktuaren fabrikazioan erabilitako jardunbideak ebaluatzen ditu. Produktu bakoitzaren materialak eta fabrikazio-jardunbideak bost kategoriatan ebaluatzen dira: gaien osasuna; materialen berrerabilpena; energia berriztagarria eta karbonoaren kudeaketa; uraren erabilera; eta ekitate soziala. Cradle to Cradle® ikuspegiaren helburu nagusia da hondakin-konzeptua desagerraraztea eta zirkuitu itxiko sistemetarako produktuen garapena sustatzea.</p>

	<p>GLOBAL RECYCLED STANDARD. Azken produktu batean sartzen den eduki birziklatua monitorizatzen du arau honek, eta, halaber, ingurumen-irizpide zein irizpide sozialekin loturiko gaiak hartzen ditu kontuan. GRS jarraipen eta segimenduko printzipio batean oinarritzen da, eta horretarako transakzio-ziurtagirietan oinarrituriko sistema bat erabiltzen du, ziurtapen organikoaren antzera, osotasun-mailarik handiena bermatze aldera. Horrek monitorizazio eta kontrolleko mekanismo gisa jokatzeko du azken produktu ziurtatuen balio-kate guztian.</p>
	<p>Arau honek ehungintzako produktuen izaera organikoa bermatzeko nazioartean onartutako baldintzak definitzen ditu, lehengai ateratzen denetik -ingurumenarekin eta ingurune sozialekin arduratsua den ekoizpen baten bidez- etiketatze zuzenera arte, azken produktuak kontsumitzaileari beharrezko segurtasuna eta sinesgarritasuna eskaini diezazkion. Ingurumen-arloko zein arlo sozialeko irizpideak barne hartzen ditu, eta substantzia- eta gai-zerrenda luze bat debekatzen du, tartean daudela metal astun toxikoak, formaldehidoa, disolbatzaile aromatikoak, nanopartikula funtzionalak, genetikoki eraldatutako organismoak (GEO), etab.</p>
	<p>% 100 ARTILE AUTOKTONOA (MAGRAMA). Zigilu honek arraza autoktonoetako animalien produktuak identifikatzen ditu. Azienda hori gehienbat hazkuntza estentsiboan gobernatzen da, eta horrek, hain zuzen, ondorio onuragarriak dakartza landa-ingurunearen iraunkortasunerako.</p>
	<p>NATURTEXTIL. iVNk ziurtatutako BEST ziurtagiriaren helburua da ehungintza-industrian arau bat ezartzea, ehungintza-kate guztiaren ikuskapena, erantzukizun ekologikoaren aldetik ez ezik, erantzukizun sozialaren aldetik ere barne hartuko duena. Egun, iVNk ziurtatutako BEST ziurtagiria da merkatuan eskuragarri dagoen estandar gorena, ehungintzako ekoizpen ekologikoaren katerako. Gainera, mundu guztian da baliozkoa.</p>
	<p>OCC GUARANTEE Organic Cotton Colours delakoaren berme-zigilua da, haren kalitate-estandar gorena, eta ehungintza-industriako kalitatezko baldintza hertsienak betetzen ditu ekoizpen-prozesuaren fase guztietan, baita hazitik hasita ere.</p>
	<p>ORGANIC 100. ECOCERTek ziurtatzen du ehungintzako produktuak Organic Content Standard estandarren arabera hazitako material organikoekin eginik daudela. Arau honen helburua da lehengaien trazabilitatea eta osotasuna bermatzea fabrikazioaren etapa guztietan. OCS 100 logoa (Organic 100 Content Standard) material organikotik % 95 edo gehiago daukan produktua ziurtatzeko baino ez da erabiltzen.</p>
	<p>STeP. Ekoizpen-prozesu guztiaren ingurumen-kudeaketarako baldintzak ezartzen ditu. Berez, proba, ikuskapen eta ziurtapen bidezko sistema bat da araua, ingurumenaren aldetik eta sozialki arduratsuak diren ekoizpen-instalazioentzat. Ziurtagiri honek ehungintzako ekoizpenaren kate guztian arriskubide eta arriskuak murriztea barne hartzen du, zuntza ekoiztetik prozesatzera arte, fabriken baliabideen jasagarritasuna, kalitatea eta eraginkortasuna handitzeko xedez.</p>



Mundu Guztian Egiaztatutako Ekoizpen Arduratsua (WRAP) deritzonak egoitza Arlington-en du (Virginia, AEB), eta baditu bulegoak orobat Hong Kongen eta Bangladeshen, bai eta ordezkariak ere Indian eta Hego-ekialdeko Asian. Erakunde independentea, objektiboa, eta irabazi-asmorik gabekoa da, eta badu betetze sozialaren arloko mundu-mailako aditu-talde bat, fabrikazio segurua, legezkoa, gizatiarra eta etikoa mundu guztian sustatzen diharduena, ziurtapenaren eta hezkuntzaren bidez.

BIDEZKO MERKATARITZAKO ZIURTAGIRIAK



Fairtrade Internacional (FLO). Produktu batek FAIRTRADE Bidezko Merkataritzako Ziurtapen Zigilua daramanean, horrek esan nahi du ekoizleek eta merkatariek Fairtrade Labelling delakoaren irizpideak bete dituztela. Irizpide horien xedea da harreman komertzialetako botere-desorekak, merkatuen ezegonkortasuna eta merkataritza konbentzionalaren bidegabekeriak zuzentzea.



EOCERT Comercio Justo. EOCERT kontrol eta ziurtapeneko erakunde bat da, nekazaritza ekologikoko produktuak ziurtatzen espezializaturik dagoena. Bidezko Merkataritzako Dibisioak ikuskapen eta ziurtapeneko zerbitzuak ematen ditu bidezko merkataritzakoak eta ekologikoak diren produktueterako.



FUNDEPPO (Antolatutako Ekoizle Txikien Fundazioa).

Ziurtapen-sistema independente eta ekonomiko bat da, ekoizpen jasangarrirako, antolaketa demokratikorako, merkataritza ekitatiborako zein autogestiorako. Osoki ekoizleen eskutik sortu den ziurtapen-zigilu bakarra da. Hortaz, ekoizlearen eta kontsumitzailearen arteko zuzeneko harremanerako proposamen bat da, Hegoaldetik abiatu dena, eta ez Iparraldetik inposatu.



Naturland Fair. Bidezko merkataritzako ziurtagiri hau osagarritzko eta borondatezko aukera bat da Naturlanden ziurtapena eskatzen duten ekoizle, prozesatzaile eta enpresa merkaturatzaileentzat. Nolanahi ere, bidezko merkataritzako ziurtagirirako oinarria Naturlanden ziurtagiri organikoa da.



IMO-Fair for Life. Fair for Life delakoak erantzukizun sozialeko eta bidezko merkataritzako ziurtapen-aukera bat eskaintzen du ekoizteko, prozesatzeko edo merkaturatzeko eragiketa-mota GUZTIETARAKO, baldin eta bere konpromisoa frogatu nahi badu lan-baldintza onak bermatzeko, langile eta ekoizle marjinalizatuen bizi-maila hobetuta, eta ekarpena eginda haien tokiko komunitateari zein ingurumenaren zaintzari.



Zigiluak, era berean, produktuak bidezko merkataritzaren nazioarteko estandarren arabera merkaturatzen dituzten erakunde ziurtatuenak izan daitezke, hala nola **Bidezko Merkataritzako Estatuko Koordinakundearena eta World Fairtrade Organization erakundearena.**

TEKNOLOGIAREN ARLOA

Gaur egun ez dago arlo honetarako zigilurik; hala ere, irizpide batzuk aintzat har ditzakegu ingurumen-jasangarritasuna eta giza eskubideen errespetua bultzatzeko klausulak sartzeko, bai teknologia fabrikatzeko lehengaiak erauzteari dagokionez, bai teknologia hori fabrikatzeari berari dagokionez.

Kontuan izan beharreko lehen gauzetako bat da merkaturatzen diren aparatu teknologiko berriek ez ohi dituztela jendearentzako prezioan jaso manufaktura-prozesu guztiaren **ingurumen-eta gizarte-inpaktuak** (lehengaiak erauztea, lan-baldintza duinik gabeko fabrikazio deslokalizatua, garraioa, energia-kontsumoa eta prozesu guztiaren isuri atmosferikoak). Halako aparatuen prezioak kontuan hartuko balitu kanpo-efektu horiek guztiak kostatzen direna, ziur asko haien erosketa era arrazionalagoan egingo litzateke.

Errealitate horren aurrean, pauso txiki batzuk eman dira ekipamenduak berrerabiltzeko apustu baterantz, eta hori pixkanaka gora egiten ari da, legediari esker. Espainiako estatuan, 2015. urtean 110/2015 Errege Dekretua onartu zen, estatuko legedira Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2012/19/EB Zuzentarauaren transposizioa egitekoa. Gutxieneko berrerabilpen bat egitera behartzen zuen zuzentarauaren lehen transposizioa izan zen: ekipamendu informatikoen eta mugikorren kasuan, 2017tik 2018ra bitartean % 3, eta 2018tik aurrera, % 4².

Arau hori egonik ere, oraindik ere Administrazioek zenbait kasutan erabakitzen dute -gutxiago kutsatzen duten aparatu eta teknologia batzuk, eraginkorragoak, izateagatik eta klima-aldaketari aurre egiteagatik- parke teknologikoa berritzea, funtsezko alderdi batzuk aintzat hartu gabe: aparatu berria fabrikatzeko gastatzen den energia edo berritu den aparatuaren bizitza teknikoa bukatu aurretik sortutako hondakinak. Hortaz, behar bezala aztertu behar da noiz komeni den berritzea, eta industria teknologikoen propagandari gogor egin, neurrigabeko kontsumo hori bultzatu ohi dute eta. Joera hori geldiarazteko xedez, gaur egun bi bide dago presio egiteko: kontratazio publikotik eta elektronikaren kontsumo arduratsutik.

Bartzelonan egindako Mobile Social Congress-aren laugarren edizioan azaldu bezala³, kontratazio edo erosketa publiko arduratsua tresna bat izan daiteke industria elektronikotik lan-esplotazioari aurre egiteko. Helburu horixe du, bada, **Make ICT Fair - Reforming Manufacture & Minerals Supply Chains through Policy, Finance & Public Procurement proiektuak** («Egin ditzagun IKTak bidezko - Manufakturaren eta mineralen hornidura-kateak erreformatuz arauketaren, finantzen eta erosketa publikoaren bidez»).

2. <http://opcions.org/es/articulo/toneladas-ordenadores-moviles-utiles-convertidos-residuos/>

3. <https://www.tecnologialibredeconflicto.org/mobile-social-congress-2019-iii/>

Electronics Watch proiektu hori sustatzen duten erakundeetako bat da, eta sare-lanaren bidez batu nahi ditu Europako herrialdeetako sektore publikoko erakundeak (udalak eta unibertsitateak, batik bat), herrialde teknologia-fabrikatzaileetako gizarte zibileko entitateak (GKEak eta sindikatuak), eta lan-baldintzen defentsan adituak.

Alderdi horien arteko lankidetzaren ondorioz, Administrazio publikoen kontratuetan klausula sozial batzuk sartzen dira, udal eta unibertsitateak IKTez hornitu nahi dituzten enpresek lan-estandar jakin batzuk betetzeko konpromisoa har dezaten. Gero, kontratuak iraun bitartean, gizarte zibileko erakundeak eta tokiko sindikatuak arduratzen dira halakoak betetzen direla zaintzeaz. Proiektuaren esparruan, mekanismo batzuk ere landu dira jardunbide desegokiei erantzuteko, halakorik atzematen baldin bada langileen ikuspuntutik egindako ikuskapen sozial horien bidez.

Bartzelonako kongresu hartan, Jasangarritasunaren aldeko Tokiko Gobernuen Sarearen (ICLEI, ingelesez) ordezkari batek honako hau adierazi zuen: **«Erosketa publikoak, batez beste, BPGd-aren % 14-15 mugitzen du EBko estatu kideetan. Horregatik, erakunde publikoek irizpide sozialak edo ingurumenekoak sartzeko konpromisoa hartzen dutenean, merkatuak aditu egiten du.»**

Beste alternatiba interesgarri bat dira produktu elektronikoak konpontzeko eta birziklatzeko esperientziak, ekonomia solidarioaren, enpresen zein sektore publikoaren aldetik, elektronika kontsumitzeko era alternatibo bat sustatzeko.

Adibide praktikoa eta interesgarria dugu **Reciclanet**, hezkuntza-elkarte ekologista eta solidario bat, 2000. urtetik Euskadin ekipamendu informatikoak berreskuratzeko eta berrerabiltzeko nahiz *software* librea zabaltzeko proiektuak aurrera eramaten dituena.


Teknologia mugikorren **Fairphone** dago, *smartphone*-modelo modular bat fabrikatzen duen enpresa bat, sektoreko etika- eta ingurumen-estandar hertsienak betetzeagatik nabarmentzen dena. Proiektu aitzindari bat da, eta alderdi askotatik erakusten du, nahigarria ez ezik, posiblea ere badela «teknologia arduratsu» baten aldeko apustua egitea.

Bestalde, Administrazio publikoek produktu eta zerbitzu teknologikoak erosteko egun duten dinamika, neurri handi batean, kanpo-kontratazioan eta *software* pribatuaren erabileran oinarritzen da; egoera horren ondorioz, Administrazio publikoak nolabaiteko mendetasunera iritsi dira teknologia-industria hornitzaileekiko. Egoera hori leheneratzeko, badago zenbait jarduera aurrera eramatea:

- Lehentasunez *software* libre eta arkitektura eta estandar irekiak erabil daitezzen sustatzea, hornitzaileekiko mendetasuna hausten laguntzeko, Administrazio burujabetza teknologikorantz aurrera eginda horrela.
- Kontratu-akordio berriak definitzea, *softwarea* diseinatzeko eta garatzeko proiektuetan diharduten udal-teknikariei gaikuntza eta prestakuntza ematea aintzat hartuta, hirugarren batzuekiko mendetasuna minimizatzeko helburuz.

JARDUNBIDE EGOKIEN ADIBIDEAK

Ayuntamiento de Valladolid
 Área de Urbanismo, Infraestructuras y
 Vivienda
 Oficina de contratación y supervisión de
 proyectos



PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA TRAMITACIÓN DEL CONTRATO DE SUMINISTRO DEL VESTUARIO Y EQUIPOS DE PROTECCIÓN INDIVIDUAL DEL PERSONAL DEL ÁREA DE URBANISMO, INFRAESTRUCTURAS Y VIVIENDA, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO.

H.2.3.- Criterios medioambientales (V₃): de 0 a 5 puntos.

Con el fin de reducir los impactos medioambientales y los riesgos de la salud, se valorará las ofertas que acrediten que sus prendas y elementos ofertados han sido confeccionados cumpliendo los requisitos de limitación de la presencia de sustancias químicas en el producto final según los estándares definidos en OEKO-TEX® 100, "Made in Green" o equivalente.



Valladolideko Udalaren lizitazio honetan, baloratu egiten da ingurumenarengaineko inpaktuak zein osasunerako arriskuak murriztea, OEKO-TEX® 100 eta "Made in Green" etiketan ezarritako estandarren arabera.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARTICULARES QUE HA DE REGIR EN EL CONTRATO ADMINISTRATIVO ESPECIAL DE PRESTACIÓN DEL SERVICIO DE BAR CAFETERÍA CON CRITERIOS SALUDABLES Y SOSTENIBLES EN DISTINTOS CENTROS DE LA UNIVERSIDAD COMPLUTENSE DE MADRID A ADJUDICAR POR PROCEDIMIENTO ABIERTO Y PLURALIDAD DE CRITERIOS DE ADJUDICACIÓN..

Se consideran como productos de comercio justo a los efectos de la presente licitación, los siguientes: café, té y otras infusiones, azúcar, caramelos, galletas, crema de cacao, cacao instantáneo, cacao puro, bombones, tabletas y barritas de chocolate. A título informativo, las siguientes certificaciones contienen los citados diez (10) criterios o principios que el comercio justo debe cumplir, sin perjuicio de que el licitador aporte otras equivalentes, que serán valoradas por el órgano de contratación: • World Fair Trade Organization. • Fairtrade. • Naturland Fair. • EcoCert. • Fair for Life. • Símbolo de Pequeños Productores.



Complutense Unibertsitatearen preskripzio teknikoaren agiri honetan ikusten dugu bidezko merkataritzako produktu-zerrenda bat sartzen duela eta, gainera, ziurtagiri edo etiketen sistema ezartzen duela erreferentzia eta homologazioko sistematzat.

PLIEGO DE CONDICIONES PARA LA ADQUISICIÓN DE EQUIPAMIENTO DE MICROINFORMÁTICA, PARA EL AYUNTAMIENTO DE PAMPLONA

1. Ecoetiquetas expedidas por organismos oficiales: Ecoetiqueta europea, Angel Azul, Energy Star, TCO's y añadidas claramente al producto.
2. Cualquier otro documento expedido por organismos nacionales o internacionales (que tendrá que ser reconocido por el organismo nacional competente) que acredite fehacientemente el cumplimiento de normas, recomendaciones y características ambientales, de ahorro energético y de reducción de radiaciones emitidas por los equipos incluidos en la oferta, que aparecen en las especificaciones técnicas.



Iruñeko Udalaren baldintza-agiri honetan, berariaz eskatzen da erakunde ofizialek emandako ekoetiketak izateko.

2. Enpresak hautatzea

Kontratu erreserbatuak

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko **9/2017 Legean**, salbuespen bat ezartzen zaie konkurrentzia librearen eta tratu-berdintasunaren printzipioei, kontratu erreserbatuen bidez.

Kontratu bat erreserbatzen denean, legean bertan aurrez zehazturiko erakunde-mota jakin batek bakarrik parte hartu ahalko du edo onartu ahalko da lizitazioan.

Zehazki, laugarren xedapen gehigarrian, enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatutako kontratuak arautzen dira; eta berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian, ekonomia sozialeko enpresa eta entitateei erreserbatutakoak.

Kontratu bat erreserbatzean, goian esandako enpresa-tipologiak bakarrik lehiatu edo kontratatu ahalko dira, eta horrela saihesten da, beraz, irabazi-asmoa duten merkataritza-enpresekin lehian sar daitezten. Kontratu erreserbatuen figura sektore jakin batzuei aplikatzen badiegu -jantzien arloari edo bidezko merkataritzari, edo produktu teknologikoei-, aztertuko dugu zein kasutan den posible eta komenigarria kontratu bat erreserbatzea arlo jakin horietako antolakundeek bakarrik parte hartu ahal izateko, edo helburu edo xede sozialtzat deskribatutakoak dituztenek.

Laugarren xedapen gehigarria.

1. Ministro Kontseiluaren edo autonomia-erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabakien bidez, gutxieneko erreserba-ehunekoak ezarriko dira zenbait kontratu edo kontratu horietako zenbait sorta adjudikatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea gizarte-ekimeneko enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatzeko, edo gutxieneko erreserba-ehuneko bat ezarriko da kontratu horiek enplegu babestuko programen barruan gauzatzeko, baldin eta enplegu-zentro berezietako, laneratze-enpresetako edo programetako langileen artean desgaitasuna dutenen edo gizartetik baztertuta



daudenen ehunekoa enpresa horien erreferentziako araudian aurreikusitakoa bada, eta, betiere, gutxienez 100eko 30 bada. Enplegu-zentro berezi eta laneratze-enpresa horiek arautu zituzten, hurrenez hurren, Desgaitasuna duten Pertsonen Eskubideen eta haien Gizarteratzearen Lege Orokorraren testu bateginak (azaroaren 29ko 1/2013 Legegintzako Errege Dekretuaren bidez onartua) eta Gizarteratze Enpresen Araubidearen Legeak (abenduaren 13ko 44/2007 Legea), eta lege horietan ezarritako betekizunak bete behar dituzte halakotzat hartuak izateko.

Ministro Kontseiluaren edo autonomia- erkidegoetako eta toki-entitateetako organo eskudunen erabaki horietan gutxieneko baldintzak ezarriko dira aurreko paragrafoan xedatutakoa bete dadin bermatzeko.

Ministro Kontseiluak lege hau indarrean jartzen denetik urtebete igaro baino lehen hartu behar du apartatu honetan aipatutako erabakia. Epe hori amaitutakoan, Ministro Kontseiluak erabakirik hartu ez badu, Estatuko sektore publikoko kontratazio-organoei ehuneko 7ko gutxieneko erreserba-ehunekoa aplikatu beharko dute VI. eranskinak jasotako CPV kodeetan bildutako hornidura eta zerbitzuak adjudikatzeko prozeduren guttizko zenbatekoaren gainean, apartatu honetako lehen paragrafoan adierazitako moduan; ehuneko hori ehuneko 10era igoko da lege hau indarrean jarri eta handik lau urtera.

2. Lizitazio-iragarkian, xedapen honen berri eman beharko da.

3. Xedapen gehigarri honek ezarritako erreserba aplikatzen zaien kontratazio-prozeduretan ez da eskatuko lege honen 107. artikuluan aipatzen den behin betiko bermea, salbu eta kontratazio-organoei, aparteko arrazoiengatik, beharrezkotzat jo eta espedientean horrela justifikatzen badu.

Berrogeita zortzigarren xedapen gehigarria. Gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzuetako kontratu jakin batzuk antolakunde zehatz batzuentzat uztea.

1. Laugarren xedapen gehigarrian ezarritakoa ezertan kendu gabe, botere adjudikatzailen kontratazio-organoei zenbait erakunderi erreserbatu ahalko diete izaera sozial, kultural eta osasuneko zerbitzuen kontratuak lizitatzeko prozeduretan parte hartzeko eskubidea; hain zuzen ere, honako kode hauen pean IV. eranskinean aipatzen direnetan: CPV 75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.



2. 1. apartatuan aipatzen diren erakundeek honako baldintza hauek guztiak bete beharko dituzte:

- a) Haien helburua izatea lehenengo apartatuan aurreikusitako zerbitzuak ematearekin lotutako zerbitzu publikoko misio bat egitea.
- b) Etekinak berriz inbertitzea erakundearen helburua lortzeko; edo etekinak banatzen edo berriz banatzen badira, parte-hartzeari lotutako irizpideen arabera egin beharko da banaketa edo birbanaketa hori.
- c) Kontratua egikaritzen duen erakundearen zuzendaritza- edo jabetza-egiturak langileen jabetzan edo partaidetza-printzipioetan oinarriturik egotea edo langileen, erabiltzaileen edo interesdunen partaidetza aktiboa eskatzen duten printzipioetan.
- d) Kasuan kasuko botere adjudikatzailerak aurreko hiru urteetan dena delako erakunde horri kasuko zerbitzuetarako kontraturik adjudikatu ez izana artikuluko honi jarraituz.


3. Xedapen gehigarri honetan xedatutakoarekin bat adjudikatzen den kontratuaren gehieneko iraupena ez da hiru urtetik gorakoa izango.

4. Lizitazioaren deialdia egiteko baliatzen den iragarkian, xedapen gehigarri hau aipatuko da.

ENPLEGU-ZENTRO BEREZIEI ETA LANERATZE-ENPRESEI ERRESERBATZEA

1. Edozein kontratu, edozein izanik haren objektua edo jarduera-sektorea, baita zenbatekoa ere, izendatu ahal da erreserbatutzat ekimen sozialeko enplegu-zentro berezientzat eta laneratze-enpresentzat.
2. Laneratze-enpresak haien araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legearen -edo autonomia-erkidegoetako legedi baliokidearen- arabera araututa daude, eta erregistro batean jasota egotera behartuta. Haien helburua da ahultasun-egoeran dauden pertsonen laneratzea eta gizarteratzea bideratzea, irabazi-asmorik gabeko merkataritza-egitura batean aldi batez lagun eginez, prestakuntza emanaz eta lan-kontratua eginez. Gutxienez, plantillaren % 30-50ek gizarte-bazterketako egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonekin eratuta egon behar du.
3. Ekimen sozialeko enplegu-zentro bereziak Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei eta haien gizarterateari buruzko Lege Orokorraren arabera araututa daude (1/2013 Legegintzako Errege Dekretua, abenduaren 29koa). Halako enpresen helburua, ondasunak ekoitzi edo zerbitzuak emateaz gain, desgaitasuna duten pertsonak laneratzea da, egokitze pertsonal eta sozialerako beharrezko zerbitzuak ezarrita. Haien plantillaren % 70ek, gutxienez, % 33ko desgaitasuna duten langileekin eratuta egon behar du.

4. Badira laneratze-enpresa eta enplegu-zentro berezi asko Hegoaldeko enpresa eta entitateekin lan egiten dutenak, edo herri pobretuetako kooperatibekin, edo, laneratze eta gizarteratzeko helburuaz gain, garapenerako lankidetzaren, ehungintzaren, produktu teknologikoen edo bidezko merkataritzaren arloetan dihardutenak. Horrenbestez, oso egokia eta aproposa izango da erreserbatutzat izendatzea lizitazio bat halako helburuak dituen laneratze-enpresa edo enplegu-zentro berezi bati adjudikatzeko moduko prestazio edo kontratu-objektu baten ingurukoa denean; izan ere, prestazioari balio erantsia emango dio, eta erraztu egingo du ekoizpen-baldintzak hornidura-kate guztian zehar bermatzeko helburua.



BOIB
Butlletí Oficial de les Illes Balears

Núm. 42
8 de abril de 2017
Fascículo 54 - Sec. V. - Pág. 10684

Sección V. Anuncios
Subsección primera. Contratación Pública
CONSEJO INSULAR DE MENORCA

3357

Licitación del contrato reservado del servicio de catering en el centro de estancias diurnas de atención a personas con discapacidad derivada de enfermedad mental «sa Platja Gran» del Consejo Insular de Menorca, por procedimiento abierto y tramitación ordinaria

Condicions especials d'execució del contracte de caràcter social, mediambiental i altres

- El contractista ha d'incloure en la prestació del servei o en el contingut del subministrament productes de comerç just en un percentatge mínim del 0,3 % sobre el preu del contracte.



Menorcako Consell Insular delakoaren lizitazio-iragarkian ikusten dugu enplegu-zentro bereziei eta laneratze-enpresei erreserbatutako catering-zerbitzu bati buruzkoa dela. Eta baldintza-agirian, gainera, egikaritzeko baldintza berezi bat ageri da, bidezko merkataritzako produktuen gutxieneko ehuneko bat erabiltzera behartzen duena.

EKONOMIA SOZIALEKO ENPRESA ETA ENTITATEEI ERRESERBATZEA

1. Entitate onuradunen tipologia hauek bakarrik sartzen dira:

- Martxoaren 22ko 1/2002 Lege Organikoaren arabera eraturiko elkarteak (Elkartzeko Eskubidea Arautzekoa); eta abenduaren 26ko 50/2002 Legearen arabera eraturiko fundazioak (Fundazioei buruzkoa).

- Kooperatibak, lan-sozietateak, laneratze-enpresak, enplegu-zentro bereziak, arrantzale-kofradiak eta eraldaketarako nekazaritza-sozietateak, Ekonomia Sozialari buruzko martxoaren 29ko 5/2011 Legean xedaturik dagoenaren arabera.

2. Goragoko erreserban ez bezala, mota honetan ezin da edozein kontratu eta edozein zenbatekoko erreserbatu, baizik eta aurreikusitako kasuetan bakarrik, eta berrogeita zortzigarren xedapen gehigarrian ezarrita dauden mugekin:

- Kontratuaren gehieneko iraupena ezingo da izan hiru urtetik gorakoa.
- Ekonomia sozialeko erakundea ezingo da izan erreserba beraren bidezko kontratu beraren adjudikazioa jasotakoa, aurreko hiru urteetan.
- Bada muga bat jarduera-sektorearen arabera: gizarte-, kultura- eta osasun-zerbitzu-etarako kontratuen lizitazioa bakarrik erreserbatu ahal da.

- Eta zerbitzu sozial, kultural eta osasuneko kontratu edo objektu guztiak ere ez dira barne hartzen, baizik eta IV. eranskineko zerrendan jasotako CPV⁴ kodeak dituztenak bakarrik:

75121000-0, 75122000-7, 75123000-4, 79622000-0, 79624000-4, 79625000-1, 80110000-8, 80300000-7, 80420000-4, 80430000-7, 80511000-9, 80520000-5, 80590000-6, 85000000-9tik 85323000-9ra, 92500000-6, 92600000-7, 98133000-4 eta 98133110-8.

- Muga hori izan arren, kontratu-objektu horietako batzuk (sukaldaritza, otorduen hornidura, otorduen hornidura-zerbitzuak, ekitaldi edo azoka eta erakusketak antolatzea), gure helbururako egokienak direnak, IV. eranskin horretan aipatzen dira:


Código CPV	Descripción
55100000-1 a 55410000-7; 55521000-8 a 55521200-0 [55521000-8 Servicios de suministro de comidas para hogares, 55521100-9 Servicios de entrega de comidas a domicilio, 55521200-0 Servicios de entrega de comidas]. 55520000-1 Servicios de suministro de comidas desde el exterior, 55522000-5 Servicios de suministro de comidas para empresas de transporte, 55523000-2 Servicios de suministro de comidas para otras empresas e instituciones, 55524000-9 Servicios de suministro de comidas para escuelas. 55510000-8 Servicios de cantina, 55511000-5 Servicios de cantina y otros servicios de cafetería para clientela restringida, 55512000-2 Servicios de gestión de cantina, 55523100-3 Servicios de comidas para escuelas.	Servicios de hostelería y restaurante.
85321000-5 y 85322000-2, 75000000-6 [Servicios de administración pública, defensa y servicios de seguridad social], 75121000-0, 75122000-7, 75124000-1; de 79995000-5 a 79995200-7; de 80000000-4 Servicios educativos y de formación a 80660000-8; de 92000000-1 a 92342200-2; de 92360000-2 a 92700000-8; 79950000-8 [Servicios de organización de exposiciones, ferias y congresos], 79951000-5 [Servicios de organización de seminarios], 79952000-2 [Servicios de eventos], 79952100-3 [Servicios de organización de eventos culturales], 79953000-9 [Servicios de organización de festivales], 79954000-6 [Servicios de organización de fiestas], 79955000-3 [Servicios de organización de desfiles de modas], 79956000-0 [Servicios de organización de ferias y exposiciones].	Servicios administrativos sociales, educativos, sanitarios y culturales.

4. (Common Procurement Vocabulary), «kontratu publikoen hiztegi erkidea», kontratuen objektuak definitu eta sailkatzeko Europa guztirako onarturik dagoen kategorizazio homogeneoa da.

3. Hala ere, eta gidako atal honetan aztertzen ari garen helbururako, honako hau ondorioztatu behar da:


- Garapenerako lankidetzako eta bidezko merkataritzako erakundeek badute irabazi-asmorik gabeko elkarte edo fundazioaren tipologia juridikoa, edo kooperatibarena, eta, hortaz, eremu subjektiboan sartzen dira.
- Erreserba daitezkeen kontratu-objektuak oso mugaturik egon arren, nabarmendu behar dugu 9/2017 Legeko IV. eranskinean (Sektore Publikoko Kontratuena, azaroaren 8koa) zenbait objektu jasotzen direla guztiz aproposak direnak kontratu bat erreserbatzeko Hegoaldeko herrialdeetako enpresa, kooperatiba eta antolakundeekin lankidetzan lan-sareak ezartzen dituzten erakunde sozialentzat eta, hartara, egokia izango dela hornidura- edo zerbitzu-kontratu horiek erreserbatzea ekonomia sozial eta solidarioko erakunde horientzat.

Se reserva la participación en la licitación a entidades y empresas que cumplan con los requisitos del citado art. 38, básicamente a título de ejemplo y no cerrado: asociaciones constituidas conforme a la Ley Orgánica 1/2002, de 22 de marzo, reguladora del derecho de asociación; fundaciones constituidas conforme a la Ley 50/2002, de 26 de diciembre, de Fundaciones; cooperativas, sociedades laborales, así como aquellas que compartan los principios de la economía social conforme a lo establecido en el art. 5 de la Ley 5/2011, de 29 de marzo, de Economía Social, y de economía solidaria.



Ayuntamiento de Pamplona
Iruñeko Udala

CONTRATO DE SERVICIOS
PROCEDIMIENTO ABIERTO
Con publicidad comunitaria sin publicidad comunitaria
Participación reservada a entidades de carácter social SÍ NO



1163175510

Tramitación ordinaria Tramitación urgente Tramitación anticipada

Expte. nº

CONDICIONES PARTICULARES DEL CONTRATO DE "SERVICIO DE APOYO PARA LA IMPLEMENTACIÓN DE UN CAMBIO DE MENÚ "HEMENGOAK" EN LAS ESCUELAS INFANTILES MUNICIPALES DE PAMPLONA CON RESERVA DE PARTICIPACIÓN A ENTIDADES DE ECONOMÍA SOCIAL, DE ECONOMÍA SOLIDARIA Y SIN ÁNIMO DE LUCRO DEL ART. 38 DE LA LFCP. "

mente



Iruñeko Udalaren lizitazio honetan, ekonomia sozialeko enpresa eta entitateei erreserbatutzat izendatzen da janari-zerbitzuen arloko prestazio bat. (Nafarroako Kontratu Publikoei buruzko 2/2018 Foru Legeko 38. artikulua aipatzen da, 9/2017 Legeko 48. XGaren baliokidea).

Kontratu txikiak eta gonbidapenak

Gauza jakina denez, kontratu txikien ezaugarri bereziak erabil daitezke (SPKLko 118. art.), nahikoa askatasun handiarekin enpresa kontratista hautatzean, praktikan zuzeneko adjudikazioa ere izan daitekeela, eskatzen den bakarra espedientean justifikatzea delako, legediak hiru eskaintza eskatzera ere behartzen ez duelako, eta izapidetzea faktura aurkeztean egiten dena baino ez delako.

Zerbitzu- eta hornidura-kontratueterako, balio zenbatetsia 15.000 eurotik beherakoa denean erabil daiteke kontratu txikia.

118. artikulua. Kontratazio-espedientea kontratu txikietan.

1. Kontratu txikiak 40.000 eurotik beherako balio zenbatetsia dutenak dira, baldin eta obra-kontratuak badira, edo 15.000 eurotik beherakoak, baldin eta hornidura- edo zerbitzu-kontratuak badira, alde batera utzi gabe estatu-mailan zentralizatutako obrei, zerbitzuei eta horniketei buruz 229. artikuluan ezarritakoa.

Kontratu txikietan, espedientearen izapidetzeak kontratazio-organoaren txostena eskatuko du, kontratuaren beharizanaren zioak ematen dituena. Halaber, gastua onestea eskatuko da, eta dagokion faktura espedienteari gehitzea; fakturak lege hau garatzeko arauak ezartzen dituzten baldintzak bete beharko ditu.

2. Obra-kontratu txikian, obren aurrekontua ere gehitu beharko da; nolana ere, dagokion proiektua ere beharko da arau espezifikoek horrela eskatzen dutenean. Era berean, 235. artikulua aipatzen duen gainbegiratze-bulego edo -unitateen txostena eskatu beharko da, baldin eta lanak obraren egonkortasunari, segurtasunari edo estankotasunari eragiten badie.

3. Espedientean, justifikatuko da ez dela kontratuaren objektua aldatzen ari kontratazioaren arau orokorren aplikazioa saihesteko, eta kontratistak ez duela izenpetu kontratu txiki gehiagorik, banaka edo guztiak batera artikulua honen lehenengo apartatuan ageri den kopurua gainditzen duenik. Kontratazio-organoak egiaztatuko du arau hori bete egiten dela. Kanpoan gelditzen dira 168.a).2.a artikuluan jasotako kasuak.

4. Kontratu txikiak 63.4 artikuluan aurreikusitako eran argitaratuko dira.

Horrez gain, enpresei gonbidapenak egiteko aukera jasotzen du legeak, zenbait prozeduratan parte hartzeko, hala nola enkante elektronikoa (SPKLko 143.6 art.), prozedura murriztuan (SPKLko 163. art.), prozedura negoziatuan (SPKLko 169.6 art.), lizitazio-prozedura negoziatuan (SPKLko 167. art.), edo berrikuntzarako elkartzeko prozeduran (SPKLko 177. art.).

Kasu horietan guztietan, Administrazio publikoek badute aukera zuzenean kontratatzeke edo parte hartzera gonbidatzeko garapenerako lankidetzak edo bidezko merkataritza berezko helburutzat duten erakundeak, edo ziurtagiri zehatz batzuk dituzten entitateak, edo kasuan kasuko erantzukizun-arloan ibilbide egiaztatua dutenak: lan-baldintzak; hornidura-katearen egiaztapena; genero-politikak, edo laneratze eta gizarteratzekoak; ingurumen-politikak; eta abar.



AYUNTAMIENTO de LEÓN

2018/929

Expediente nº 742050/2018 .- Bases reguladoras del proceso de licitación para la contratación, en la modalidad de contrato menor, en función de su duración y cuantía, del objeto contractual que se describe

Unidad Tramitadora.- **742**

1.- Objeto del contrato.-

Diversos gastos publicidad y juegos educativos comercio justo, en dos lotes pudiendo concurrir a un lote o a los dos:



Goian ageri den agirian ikusten dugu Leongo Udalaren lizitazio bat, kontratu txikiaren bidezkoa, bidezko merkataritzaren arloko publizitatearen eta joko hezigarrien inguruko prestazio bati dagokiona.

Zalantzarik gabe, erantzukizun sozialeko edukia duten eta ekoizpen-baldintza duin eta etikoak ziurtatzeko eskatzen duten kontratazio asko, haien zenbatekoa dela eta, kontratu txikien bidez egiten dira, baina ez da erraza dagokien dokumentazioa eskuratzea, kontratu txikiekin, salbuespenak salbuespen, ez delako lizitazio publikorik egiten kontratatzailearen profilean, eta ez delako Administrazio-klausulen agiririk idatzi behar. Hori dela eta, zaila izaten da halako ezaugarriak dituzten kontratu txikien baldintza-agiriak edo oinarriak topatzea, bai eta haiek adjudikatzeko erabakiak ere.

Kaudimen tekniko soziala

Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 74. artikuluan oro har aipatzen da kaudimen teknikoa, hau dioela: «Sektore publikoarekin kontratuak egin ahal izateko, enpresaburuak gutxieneko baldintzak bete beharko dituzte kontratazio-organoak ezarritako ekonomia-eta finantza-kaudimenari eta gaitasun profesional edo teknikoari dagokienez». Eta gainera: «Enpresaburuak bete behar dituen gutxieneko kaudimen-baldintzak eta horiek egiaztatzeko behar den dokumentazioa lizitazio-iragarkian adieraziko dira, eta kontratuaren baldintza-agirian zehaztu; helburuari lotuak eta proportzionalak izan behar dute».

Kaudimen teknikoa edo profesionala beharrezko baldintza bat da lizitazio batean parte hartzeko, eta gaitasunaren azterketa dakar berekin, erabakitzeke ea parte hartu nahi duten enpresek kontratua behar bezala egikaritzeko trebakuntza, langile-talde, esperientzia edo ibilbide egokiak dituzten ala ez. Kaudimena proposamenak ebaluatu aurretik aztertzen da, eta enpresa lizitazioan onartuko den ala ez erabakiko du.

Esparru orokorra zein den jakin eta gero, galdetu eta aztertu behar dugu ea legezkoa litzatekeen kaudimen tekniko edo profesionaleko irizpide bat berariaz ezartzea erantzukizun sozialaren eta ingurumenekoaren inguruan, ekoizpen-baldintzei eta hornidura-kateei aplikaturik, eta, ondorioz, lizitazio jakin batean parte hartu nahi duten enpresa guztiei berariazko baldintza batzuk eskatzea ahalbidetzen duen irizpide bat.

Edo bestela planteaturik: posible litzateke lizitazio batean bidezko merkataritzako ziurtagiriak dituzten erakundeak bakarrik onartzea, edo enpresaren erantzukizunaren arloan ibilbide bat edo ziurtagiria duten enpresak, edo beren ekoizpen-kate guztian zehar gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko baldintza jakin batzuk egiaztatu ahal dituzten entitateak?

Horri erantzuteko, Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legeko bi erreferentzia aipatuko ditugu, lizitazio publikoetan arlo sozialeko kaudimen tekniko bat eskatzeko aukerari buruzkoak.

KAUDIMEN TEKNIKOA ZERBITZU-KONTRATUETAN

90. artikulua. Kaudimen teknikoa edo profesionala zerbitzu-kontratuetan.

3. Arlo sozialean, hurbiltasun-zerbitzuak emateko arloan edo antzeko beste batzuetan gaitasun berariazkoak eduki behar badira kontratuaren objektua betetzeko, arlo horietan esperientzia zehatza, ezagutzak eta bitartekoak edukitzea eskatuko da kaudimen tekniko edo profesionaleko baldintza gisa, eta hori artikulua honen 1. apartatuan ezarritako bitartekoekin egiaztatu beharko da.

Aipatutako 90. artikulua hori zerbitzu-kontratueterako kaudimenari dagokio, eta aditzera ematen du egiaztatze bitartekoak beste edozein lizitaziotan erabili beharreko berberak direla (SPKLko 90.1 art.), baina, kasu honetan, arlo sozialeko kaudimen teknikoaren inguruan adierazi eta eskatu beharko direla.

Gai honetan asko ez luzatzearen, esan behar da kontratuei buruzko araudia oso zuhurra eta zorrotza dela lehiari mugak ezartzeari dagokionez, eta, kasu honetan, zerbitzu-kontratu baterako ibilbide edo esperientzia zehatz bat izateko eskatuz gero, edo erantzukizunez jokatzeko duen enpresa izatearen ziurtagiri bat eskatuz gero, oso litekeena da azkenean tratu-berdintasunaren edo diskriminaziorik ezaren printzipioen urraketan oinarrituriko errekurtsio bat agertzea; hori dela eta, ez dugu sakonduko aukera honetan.

Kontzeptua argia da, eta logikoa, gainera: arlo sozialeko kaudimen-baldintzak ezin dira edozein kontratutarako sartu, baizik eta, kontratuaren objektua behar bezala betetzeko, arlo horretako berariazko gaitasun konplexuak behar direnean bakarrik, eta aztergai dugun kasuan, horren egokitasuna zalantzarik iruditzen zaigu.

KAUDIMEN TEKNIKOA HORNIDURA-KONTRATUETAN

89. artikulua. Kaudimen teknikoa hornidura-kontratueta.


1. Hornidura-kontratueta, enpresaburuaren kaudimen teknikoa ondorengo bitarteko hauetako baten edo batzuen bitartez egiaztatu beharko da, kontratazio-organoak egindako aukeraren arabera:

- g) Enpresaburuak kontratua egikaritzean aplikatu ditzakeen hornidura-kateko kudeaketa-sistemen eta jarraipen-sistemen aipamena, Lanaren Nazioarteko Erakundearen funtsezko konbentzioak betetzen direla bermatzen duten kudeaketa-sistemak barnean direla.

Aipatutako 89. artikulua hori hornidura-kontratueterako kaudimen teknikoari dagokio, eta g) letran espresuki ematen du aditzera eskatu egin daitekeela Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak bete daitezela hornidura-kate guztian zehar.


Eta kasu hori, bai, aplikatu liteke, eta legezkoa litzateke kaudimen teknikoko baldintzat eskatzea hornidurako ondasunen ekoizpen-katearen kudeaketa-sistema egiaztatzea dadila; adibidez, LANEren konbentzioak betetzearen berariazko bermea.

Hurren ageri den baldintza-agiria Kanaria Handiko Kabiloarena da, eta berariaz ezartzen du kaudimen teknikoko baldintzat hornidura-katearen kudeaketa-sistemak izan eta egiaztatu beharra, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak betetzea bermatzen dutenak barne, bai eta kontratua egikaritzean enpresak aplikatu ahaliko dituen jarraipen-sistemak ere.



G. SOLVENCIA TÉCNICA Y PROFESIONAL

Indicación de los sistemas de gestión de la cadena de suministro, incluidos los que garanticen el cumplimiento de las Convenciones fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo, y de seguimiento que el empresario podrá aplicar al ejecutar el contrato.



Eta adibidetzat nahiz jardunbide egokitatzat aurkezten dugu Valentiako Udaleko Tokiko Gobernu Batzarrak, 2019ko otsailaren 22an, onartu zuen «Kontratazio publiko arduratsuari buruzko jarraibidea. Eta klausula sozialei buruzko gida inklusiboa», non espresuki aipatzen baita bidezko merkataritzako Fairtrade zigilua.

PROPUESTA APLICATIVA. SOLVENCIA TÉCNICA SOCIAL EN CONTRATOS DE SUMINISTROS

1. En los contratos de suministros, se podrá exigir de las empresas licitadoras a que acrediten que todos los productos a suministrar han sido producidos en su integridad respetando los derechos laborales básicos a lo largo de toda la cadena de producción y con estricto cumplimiento de las convenciones fundamentales de la Organización Internacional de Trabajo, en especial:
 - a) Las Convenciones 29 y 105, relativas a la supresión del trabajo forzado.
 - b) Las Convenciones 87 y 98, sobre libertad sindical, de asociación y negociación colectiva.
 - c) La Convención 100, sobre la igualdad de remuneración entre la mano de obra masculina y la mano de obra femenina por un trabajo de igual valor.
 - d) La Convención 111, contra la discriminación en el acceso a empleo y las condiciones laborales por razones de raza, color, sexo, religión, opinión política, extracción nacional u origen social.
 - e) La Convención 138, sobre la abolición de la explotación y el trabajo infantil.
 - f) La Convención 182 sobre la prohibición de las peores formas de trabajo infantil y de la acción inmediata para su eliminación.
2. Las empresas deberán demostrar su cumplimiento a través de la aportación de una certificación del producto, de la empresa o de la cadena de suministro, que acredite el cumplimiento de los citados Convenios Internacionales, como por ejemplo el Sello Fairtrade, o las certificaciones SA 8000, TCO Certified, OHSAS 8001, ISO 9001, DS 49001, ISO 26000, o cualesquiera otros de carácter equivalente, o su acreditación a través de una auditoría externa.

3. Zer baloratzen dugu?

Adjudikatzeko irizpideak

ARAUKETA ETA AZTERKETA

Arlo sozialeko eta ingurumen-arloko adjudikazio-irizpideak sartzearekin batera, enpresa lizitatzaileren proposamenak ebaluatu behar dira, eta, jakina, lizitazio-prozeduraren fase ezin hobea da hori hornidura-kate guztiko ekoizpen-baldintzen inguruko irizpideak sartzeko, eskaintzarik onena zein den eta, ondorioz, kontratua zer enpresari adjudikatuko zaion erabakitzeko ebaluatuko direnak.

Kontratuen arloko azken legeak oso berritasun interesgarriak dakartza horren inguruan; hortaz, 145. artikuluko atal nagusiak eman, eta gero aztertu egingo ditugu:

145. artikulua. Kontratua adjudikatzeko baldintzak eta irizpide-motak.

1. Kontratua adjudikatzeko, adjudikazio-irizpide ugari erabiliko dira, kalitate-prezio erlazio onenean oinarrituta.

Espedientean aldez aurretik justifikatuta, kostu-eraginkortasun erlazio onenari erantzuten dion planteamendu batean oinarritutako irizpideen arabera adjudikatu ahalko dira kontratuak, prezioan edo kostuan oinarrituta; esate baterako, 148. artikuluaaren arabera bizi-zikloaren kostuaren kalkulua erabiliz.

2. Kalitate-prezio erlazio onena irizpide ekonomiko eta kualitatiboen arabera ebaluatuko da.

Kalitate-prezio erlazio onena ebaluatzeko kontratazio-organoak ezartzen dituen irizpide kualitatiboek ingurumen-alderdiak edo alderdi sozialak jaso ahalko dituzte, kontratuaren objektuari lotutakoak, artikuluko honen 6. apartatuan ezarritako moduan; honako hauek izan ahalko dira, besteak beste:

1.a Kalitatea -balio teknikoa barne-, ezaugarri estetiko eta funtzionalak, irisgarritasuna, diseinu unibertsala edo erabiltzaile guztientzako diseinua, ezaugarri sozialak, ingurumen arlokoak edo berritzaileak, eta merkaturatzea eta haren baldintzak.



Ingurumen-baldintzak, besteak beste, honako hauei buruzkoak izan ahalko dira: berotegi-efektuko gasen jaulkipena gutxitzea, aurrezpen eta efizientzia energetikoko neurriak erabiltzea eta kontratua egikaritzean iturri berriztagarrietatik datorren energia erabiltzea, eta kontratua egikaritzeak uki ditzakeen baliabide naturalei eustea edo haiek hobetzea.

Kontratuaren ezaugarri sozialak, besteak beste, honako xede hauei buruzkoak izango dira: desgaitasuna duten pertsonen, beharrea dauden pertsonen edo talde ahuletako kideen gizareratzea sustatzea kontratua egikaritzeko aukeratutako pertsonen artean, eta, oro har, desgaitasuna duten pertsonen edo gizarte-bazterketaren egoeran edo horretarako arriskuan dauden pertsonen gizareratzea eta laneratzea; enplegu-zentro bereziekin eta laneratze-enpresekin azpikontratatzea; kontratua egikaritzean aplikatzen diren genero-berdintasuneko planak eta, oro har, emakumeen eta gizonen arteko berdintasuna; emakumeen kontratazioa sustatzea; lana, bizitza pertsonala eta familia bateragarri egitea; lan- eta soldata-baldintzak hobetzea; enpleguaren egonkortasuna; kontratua egikaritzeko pertsona kopuru handiena kontratatzea; prestakuntza eta osasunaren eta laneko segurtasunaren babesa; irizpide etikoak eta erantzukizun sozialekoak aplikatzea kontratuaren prestazioan; edo kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuen hornidurari edo erabilerari buruzko irizpideak erabiltzea.

Analisi juridiko sakonik egin beharrik gabe, adjudikatzeko irizpide sozialen legezkotasun osoa ezartzen du **145. artikulua**, aurreko arau-esparruan zegoen eragozpen oro baztertuta. Horregatik, intereseko alderdi nagusiak eta haien berritasunak aztertzea komeni da.

1. Adjudikatzeko irizpideetan sar daitezkeen gai sozialen zerrenda luze eta ireki bat ezartzen da. Eta enpresa lizitatzaileren erantzukizun soziala definitzen duten beste askoren artean, berariaz aipatzen dira **kontratua egikaritzen den bitartean merkataritza ekitatiboan oinarritutako produktuez hornitzeari edo halakoak erabiltzeari buruzko irizpideak**.
2. Gainditu egin da «kontratuaren objektuarekiko lotura zuzena» kontzeptua, **lotura kontratuaren prestazioarekin berarekin ezarri behar baita**. Hala, arauak irizten dio eta azaltzen du baduela lotura –eta baliozkoa dela– kontratuaren prestazioan sartzen den edozein gai, haren alderdietako edozeinetan, haren bizi-zikloaren edozein etapatan, haren substantzia materialekoak ez direnean ere, ekoizpen-prozesu zehatzean, edo **ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasangarriak eta bidezkoak diren ekoizpen- edo merkaturatze-moduei** dagokienez.

- 3. Gainditu egin da «ekonomiaren aldetik onuragarriena den eskaintza» kontzeptua, eta haren ordean «kalitate-prezio erlazio onena» ezarri da.** Horrela, aurreko arau-esparruarekin oraindik gertatzen ziren interpretazio murrizgarriak saihesten dira; halakoan arabera, hain zuzen, irizpide sozialek ondorio ekonomiko bat izan behar zuten, eta dirutan neurtzeko moduko eskaintza onuragarriago bat ekarri. Argudiaketa hori bertan behera geratu da doktrinaren aldetik.
4. Aholku praktiko gisa, gomendatzen dugu klausula orokorrik, zehaztugaberik, subjektiborik edo balio-iritzi bati lotutakorik idaztea saihestu dadila. Aitzitik, proposatzen dugu klausulak objektiboak eta izaera matematiko edo aritmetikokoak izan daitezela.
5. Halaber, legezkoak ez diren klausula batzuek ohartarazi behar dugu, ez baitaude loturik kontratuaren prestazioarekin eta diskriminatzaileak bailirateke. Adibidez:
- Ezin da punturik eman irabazi-asmorik gabeko entitate bat izateagatik, ez eta tipologia juridiko bat edo bestea izateagatik (SM, elkarteak edo kooperatiba).
 - Ezin da baloratu estatutuetan edo eratze-eskrituran helburutzat jaso dadin garapenerako lankidetzak edo bidezko merkataritza sustatzea eta haiei buruz sentsibilizatzea.
 - Ezin da baloratu entitate edo enpresa lizitatuzailearen esperientzia eta ibilbidea, hau da, ezin da punturik eman azken hiru urteetan bidezko merkataritzako produktuak zenbateko jakin batean fakturatu dituela egiaztatzeagatik.
6. Nahiz eta baldintza-agirietan sar daitezkeen zenbait klausula-eredu proposatuko ditugun, ohartarazi behar dugu betiere aztertu behar direla kontratuaren objektua, ezaugarriak, balio zenbatetsia eta egikaritzeko epea, baldintza-agirietan sartuko ditugun klausulak era zehatz, proportzionatu eta koherentean egokitze aldera.

ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK. ZER BALORA DEZAKEGUN. KLAUSULA-EREDUAK

1. BIDEZKO MERKATARITZAKO IRIZPIDEAK

15 puntu bitarteko balorazioa emango zaie enpresa edo pertsona lizitatuzaileei, zerbitzuaren prestazioan edo horniduraren edukian bidezko merkataritzako produktuak sartzeko konpromisoagatik.

Irizpide hori automatikoki baloratuko da hurrengo eskalaren arabera, lizitazioaren aurrekontu orokorraren barruan, kontratua egikaritzean lizitatuzailea sartzera konprometitzen den bidezko merkataritzako produktuen kopurua edo ehunekoa aintzat harturik.



- Gutxienez bidezko merkataritzako 3 produktu erabiltzeko konpromisoagatik, gutxienez adjudikazio-aurrekontu guztiaren % 5 hartzen dutela: 5 puntu.
- Gutxienez bidezko merkataritzako 6 produktu erabiltzeko konpromisoagatik, gutxienez adjudikazio-aurrekontu guztiaren % 10 hartzen dutela: 10 puntu.
- Gutxienez bidezko merkataritzako 9 produktu erabiltzeko konpromisoagatik, gutxienez adjudikazio-aurrekontu guztiaren % 15 hartzen dutela: 15 puntu.

Proposamen teknikoan, enpresek adierazi beharko dute zer produktu zehaztarako hartzen duten erabiltzeko edo horniduran sartzeko konpromisoa, zer kopurutan eta lizitazioaren aurrekontuaren zer ehunekotan, produktuen egiaztapen-sistemaren berri emateaz gain, produktu horiek zer ziurtagiri edo berme-zigilu izango dituzten aditzera emanda.

Bidezko merkataritzari buruzko adjudikazio-irizpide osagarriak.

10 puntu bitarteko balorazioa emango zaie enpresa edo pertsona lizitatzailerei, proposamen teknikoan hurrengo azpiataletako bat edo batzuk betetzera konprometitzeagatik edo egiaztatzeagatik:

- Gutxienez bi sentibilizazio-ekintza publiko egitea bidezko merkataritzaren esparruko ekoizpenari eta merkataritza-harremanei buruz: 2 puntu.
- Kontratua betetzen den tokian beti ikusteko moduan erabiltzea dibulgazio eta sentibilizazioko kartelak eta liburuxkak bidezko merkataritzari buruz: 2 puntu.
- Bidezko merkataritzari buruzko prestakuntza bat, gutxienez 5 ordukoa, diseinatzea eta kontratua egikaritzeari atxikiko zaizkion langileei ematea, hornidurako produktuen inguruan azalpenak eman eta sentibilizatu ahal izateko: 2 puntu.
- Enpresa lizitatzailiak bidezko merkataritzako ziurtagiri edo zigilu bat izatea, horniduraren prestazio egokia eta jarraitutasuna bermatuta: 2 puntu.
- Hobekuntzak. 2 puntu bitarteko balorazioa emango zaie proposamen teknikoei, adjudikatzeko irizpideetan bidezko merkataritzari buruz ezarritakoa hobetzeagatik, edo bidezko merkataritzari loturiko hobekuntzak planteatzeagatik.

2. GIZA ESKUBIDEEN BABESA ETA LANE-REN KONBENTZIOAK

5 puntu bitarteko balorazioa emango zaie enpresa edo entitate lizitatzailerei, kontratua egikaritzen den denbora guztian, ekoizpen-katearen edozein fasetan parte hartzen duten pertsona guztientzat, eta hornidura-kate guztian zehar, giza eskubideak sustatu eta errespetatzeko nahiz kontratua nazioarteko konbentzio



eta hitzarmen hauek zorrozki betez aurrera eramateko konpromisoagatik:

- Pertsona Desgaituen Eskubideei buruzko Nazioarteko Konbentzioa.
- LANEren 87. hitzarmena, askatasun sindikalari eta sindikatzeko eskubidearen babesari buruzkoa.
- LANEren 98. hitzarmena, sindikatzeko eskubideari eta negoziazio kolektiborako eskubideari buruzkoa.
- LANEren 29. hitzarmena, lan behartuari buruzkoa.
- LANEren 105. hitzarmena, lan behartuaren abolizioari buruzkoa.
- LANEren 138. hitzarmena, gutxieneko adinari buruzkoa.
- LANEren 111. hitzarmena, diskriminazioari buruzkoa (enplegua eta okupazioa).
- LANEren 100. hitzarmena, ordainsari-berdintasunari buruzkoa.
- LANEren 182. hitzarmena, haur-lanaren modurik okerrenei buruzkoa.

3. ENPRESEN ERANTZUKIZUN SOZIALEKO ETIKETAK EDO ZIURTAGIRIAK

5 puntu bitarteko balorazioa emango zaie lizitatzaleei, baremo guztitik, hornidura-kate guztian zehar ondasunak erantzukizun sozial eta/edo ingurumen-erantzukizuneko irizpideen arabera ekoitzi, eraldatu, merkaturatu eta banatzeko konpromisoagatik.

Horretarako, 5 puntu emango zaizkie enpresa lizitatzaleei, haien erantzukizun sozial korporatiboa egiaztatzen duen berriazko ziurtagiri edo zigilu bat aurkezten badute, hala nola Fairtrade zigilua, edo SA 8000, TCO Certified, OHSAS 8001, ISO 9001, DS 49001, ISO 20400 ziurtagiriak, edo baliokideak diren beste batzuk, eta orobat arauak betetzeko plan bat, edo compliance-plan bat, edo kanpo-ikuskapen baten bidezko horren egiaztapena aurkezten badute.

4. PRODUKTUEN ETIKETAK EDO ZIURTAGIRIAK

15 puntu bitarteko balorazioa emango zaie enpresa edo pertsona lizitatzaleei, zerbitzuaren prestazioan edo horniduraren edukian produktu guztiak etiketa, homologazio edo ziurtagiri sozial eta/edo ekologikodunak sartzeko konpromisoagatik.

Kontratazio-organoak ziurtagiri edo zigilu egokiak ezarriko ditu, hornidurako produktu-motaren arabera edo kontratatu nahi den zerbitzuan erabiliko diren

+

produktu-moten arabera; esaterako: Fairtrade, Energy Star, Europako Etiketa Ekologikoa, Aingeru Urdina, Beltxarga Zuria, OEKO-TEX, etab.

Proposamen teknikoan, enpresek adierazi beharko dute zer produktu zehatzetarako hartzen duten erabiltzeko edo horniduran sartzeko konpromisoa, zer kopurutan eta lizitazioaren aurrekontuaren zer ehunekotan, produktuen egiaztapen-sistemaren berri emateaz gain, produktu horiek zer ziurtagiri edo berme-zigilu izango dituzten aditzera emanda.

5. GENERO-POLITIKAK

10 puntu bitarteko balorazioa emango zaio enpresaren eskaintzari enpresan emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloan honako ekintza hauetako bat edo batzuk aurrera eramateko konpromisoagatik:

- Emakumeak kontratatzea kontratua egikaritzeko.
- Emakumeak kontratatzea erantzukizuneko edo kudeaketako postuetan.
- Gizarte-bazterketako egoeran edo horretarako arriskuan dauden emakumeak kontratatzea, edo genero-indarkeriaren biktima diren emakumeak.
- Emakumeen eta gizonen plantilla parekide bat kontratatzea.
- Protokolo bat edo berriazko neurriak izatea sexu-jazarpena eta sexuan oinarritutako jazarpena prebenitzeko, edo indarkeria matxistako egoerak prebenitzeko, edo sexu-orientazioan edo genero-identitatean oinarritutako jazarpena.
- Enpresan genero-hizkera erabiltzeko berriazko protokolo bat onartzea eta zabaltzea.
- Laneko arriskuak prebenitzeko eta osasuneko ekintzak diseinatzea eta gauzatzea genero-ikuspegiz eta sexuaren arabera ezaugarri desberdinetarako egokituak.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasun eragingarrirako berriazko neurriak xedatzen dituen enpresa-hitzarmen bat izatea eta kontratua egikaritutako duen plantillari aplikatzea.
- Emakumeen eta gizonen arteko berdintasunaren arloko ziurtagiri edo egiaztagiri bat izatea eta kontratua egikaritzean aplikatzea.
- Konpromisoa hartzea kontratuaren onuradun edo erabiltzaile izango diren emakumeen kopurua gutxienez guztien % 50 izan daitezen.
- Bizitza pertsonala, lana eta familia bateragarri egiteko neurriak diseinatu, ezarri eta aplikatzea.
- Kontratua egikaritutako duten langileek kualifikazioa eta esperientzia izatea emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren arloan.

6. BEHARREAN DAUDEN KOLEKTIBOEN LANERATZEA

1. 10 puntu bitarteko balorazioa emango zaie enpresa edo entitate lizitzaileei, kontratua egikarrituko duen plantillan lan-merkatura sartzeko zailtasunak dituzten pertsonak enplegatze eta kontratuaren prestazio guztian kontraturik edukitzeko konpromisoagatik.
2. Kontratua egikarrituko duen plantillak profil hauetako bat izan beharko du:
 - % 33ko edo gehiagoko desgaitasun-ziurtagiria duten pertsonak.
 - Laneratze Enpresen Araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legean jasotako profilak.
 - Lan-merkaturatzeko zailtasunak dituzten pertsonak, urriaren 23ko 3/2015 Legegintzako Errege Dekretuaren arabera.
3. Puntuak honela esleituko dira:
 - x puntu, profil horietan sartzen den 1 pertsona kontratatze konpromisoagatik.
 - x puntu, profil horietan sartzen diren 2 pertsona kontratatze konpromisoagatik.
 - x puntu, profil horietan sartzen diren 3 pertsona kontratatze konpromisoagatik.

7. INGURUMENeko IRIZPIDEAK

15 puntu bitarteko balorazioa emango da enpresa edo entitate lizitzaileek proposamen teknikoan ingurumen-ikuspegia integratzeagatik.

Horretarako, Administrazio-klausulen agirietan ingurumen-irizpideak jasoko dira produktu edo hornidurari buruz, produktua egitean edo kontratua egikaritzean erabilitako baliabide eta materialei buruz, langileen ingurumen-arloko prestakuntzari buruz, enpresak dituen ingurumen-ziurtagiriei buruz, kudeaketa-sistemei buruz, bai eta isuriak murriztu edo desagerraraztearen, energia-kontsumoaren, hondakinen, birziklapenaren eta berrerabilpenaren inguruko irizpide guztiei buruz ere. Bestek beste, adjudikatzeko irizpide hauek ezarri ahalko dira:

- (a) Uraren, erregaien eta lehengaien kontsumoa minimizatzea.
- (b) Energia-eraginkortasuneko neurriak ezartzea eta energia-iturri berriztagarriak erabiltzea.
- (c) Ahalik eta hondakin gutxiena sortzea (arriskutsuak eta ez-arriskutsuak), eta hondakinak berrerabiltzea eta birziklatzea.



- (d)** Ontziak eta enbalajea murriztea, eta halakoak berrerabiltzea eta birziklatzea.
- (e)** Material eta produktu birziklatuak erabiltzea.
- (f)** Erregai alternatiboak erabiltzea.
- (g)** Berotegi-gasak atmosferara isurtzea murriztea, hala nola CO₂, CH₄, HFC, PFC, SF₆.
- (h)** Kutsatzaileak atmosferara isurtzea murriztea, hala nola partikulak (PM10, PM2,5), nitrogenu oxidoak (NO₂, NO), edo konposatu organiko lurrunak (KOL).
- (i)** Hots-kutsadura eta argi-kutsadurako isurpenak murriztea.
- (j)** (EBko ur-politikaren esparruko lehentasunezko substantziak (2013/39/EB Zuzentarauan jasotakoak) uretara isurtzea minimizatzea.
- (k)** Lurgaineko eta lurpeko uren nahiz lurzoruen kalitatea eta osasungarritasuna babestea, lanen eta obren kudeaketan.
- (l)** Osasunerako edo ingurumenerako arriskutsuak diren material eta substantzien erabilera baztertzea edo murriztea (kartzinogenoak, mutagenoak eta ugalketarako toxikoak diren substantziak: CMR).
- (m)** Produktu ekologiko, fresko eta/edo sasoikoak erabiltzea jantoki- edo catering-zerbitzuetako menuak prestatzeko.
- (n)** Azken produktua biodegradagarria izatea.
- (o)** Azken produktuan material birziklatuak sartzea eta halakoak kaltegabekoak izatea.
- (p)** Produktuari, ekodiseinuari eta zerbitzu edo obrei dagozkien kalitate-arauetan edo etiketa ekologikoetan ezarritako baldintzak betetzea.
- (q)** Ekosistemetan eragindako inpaktuak murriztea.
- (r)** Kontratuaren objektua den zerbitzurako ingurumen-planak aurkeztea.

ADIBIDEAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK

**PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA
CONTRATACIÓN MEDIANTE PROCEDIMIENTO ABIERTO DEL SUMINISTRO DE
VESTUARIO DE PROTECCIÓN INDIVIDUAL: PETO ANTI GOLPES DE DIVALTERRA, S.A.,
EXpte. 148/BBFF/2018**

- Condiciones laborales dignas en toda la cadena de suministro (**hasta 5 puntos**)

Se otorgará un máximo de 5 puntos a la oferta cuya producto ofrezca productos que garanticen condiciones laborales dignas en toda la cadena de suministro.

Se deberá acreditar mediante la presentación de una certificación que acredite que los textiles y otros materiales específicos empleados en la producción del material suministrado –sea de forma directa o mediante subcontratación–, se ha realizado respetando los derechos laborales básicos recogidos en la Declaración de la Organización Internacional del Trabajo, **relativa a los principios y derechos fundamentales, y con una política comprometida de gestión** en cuanto al medio ambiente y a la prevención de derechos laborales. Lo cual podrá acreditarse mediante:

- Certificado del compromiso ético de empresa en idioma español (SGE 21, SA 8000, Fair Wear Foundation, Made in Green o equivalente, o un certificado de auditoría externa). Según Anexo nº 15.
- Certificado de código de conducta SA8000/Fair Wear Foundation
- Certificado de auditoría hecha por empresas externas.



Valentziako Diputazioko enpresa publiko honen baldintza-agiri hau oso interesgarria da; bertan, hornidura-kate guztian lan-baldintza duinak egotea baloratzen da, eta, gainera, ziurtagiri nagusiak aipatzen ditu, bai eta, ziurtapen-sistema gisa, kanpo-ikuskapena ere.

I.- CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS QUE HAN DE REGIR LA CONTRATACIÓN DEL SERVICIO DE GESTIÓN DEL ALBERGUE PARA PERSONAS SIN HOGAR DE ALTSASU/ALSASUA.

2.- Criterios sociales: Hasta 10 puntos.

- Se valorará con hasta 10 puntos la realización de una parte del objeto del contrato con productos de comercio justo. La puntuación se obtendrá en proporción al porcentaje sobre el presupuesto de contratación de productos de comercio justo que la licitadora se compromete a utilizar en la ejecución del contrato, conforme a la siguiente fórmula:

$$P = (PCJ / PL) \times 100 \text{ RESULTANDO } > P \text{ (Puntuación obtenida) } = PCJ \text{ (presupuesto de comercio justo que se compromete a contratar) } / PL \text{ (presupuesto de licitación contenido en la propuesta económica).}$$

A estos efectos se considerarán de comercio justo aquellos productos conforme a los parámetros de la Resolución del Parlamento Europeo 2005/2245 (INI), y avalados a través de la marca WFTO (World Fair Trade Organization) que avala a entidades; mediante la garantía del Sello FLO (Fair Labelling Organization/Organización del Sello de Comercio Justo), que certifica productos, o a través de cualquier certificación equivalente.



Altsasuko Udalaren baldintza-agiri honetan, bidezko merkataritzako produktuak eta irizpideak sartzea baloratzen da.



CONTRATO DE SUMINISTRO
PROCEDIMIENTO ABIERTO SIMPLIFICADO ABREVIADO (159.6 LCSP)


Tramitación ordinaria
 Tramitación urgente
 Tramitación anticipada

Expte. nº 32/2018

2.-	Calidad Medioambiental	Máximo 12 puntos
	Con objeto de promover la sensibilización global con el medioambiente y la seguridad de este tipo de empresas se valorará la posesión de los siguientes certificados en vigor: <ul style="list-style-type: none"> ISO 9001: 4 puntos ISO 14001: 4 puntos OHSAS 18001 o ISO 45001: 4 puntos <p>DOCUMENTACIÓN: Certificado en vigor</p>	



Baldintza-agiri honetan enpresa lizitatzailleen ingurumen-kalitatea baloratzen da, ziurtagirien bidez. Eta badu interes gehigarri bat, erakunde kontratatzaile motagatik, Aragoiko Gobernuak, Teruelgo Probintzia Diputazioak eta Alcañizko Udalak partizipazioa duten enpresa publiko bat da eta. Izan ere, enpresa publikoek ere gizarte- eta ingurumen-erantzukizuneko irizpideak sartu ahal eta behar dituzte beren erosketa eta kontratazio publikoetan.



UNIVERSIDAD
PABLO DE OLAVIDE
 SEVILLA

PLIEGO DE CLAUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA CONTRATACION DE SUMISTROS, MEDIANTE PROCEDIMIENTO NEGOCIADO CON O SIN PUBLICIDAD.

E) Otras mejoras: Hasta 5 puntos, distribuidos en:

- a) Acciones de responsabilidad social de la empresa, acreditadas mediante Certificación de compromiso con la responsabilidad social (Fonética (SGE21), SA8000, AA1000, GRI,...): Hasta 2,5 puntos.



Unibertsitateak dira kontratu publikoei buruzko legediari lotutako beste erakunde publiko mota bat, eta kasu honetan ikusten dugu nola baloratzen diren enpresen erantzukizun sozialeko ekintzak baldintza-agirian, egiaztatzeko ziurtagirien bidez.

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA ADJUDICACIÓN DEL
"CONTRATO DE SUMINISTRO DE UN VEHICULO PARA LA POLICIA LOCAL DE
GÜEÑES".

DECLARACIÓN SOBRE LA PROMOCIÓN DE IGUALDAD DE GÉNERO

en nombre propio o de la empresa que representa (1), declara bajo su personal responsabilidad:

_____ que desarrolla medidas destinadas a lograr la igualdad de oportunidades, tales como:

- ❑ Marca de Excelencia de Distintivo Empresarial de Igualdad.
- ❑ Convenio suscrito al Programa Planes de Igualdad de empresas (IGUALEM).
- ❑ Medidas de Conciliación de la vida personal, familiar y laboral.
- ❑ Elaboración y aplicación de un Plan de Igualdad en la Empresa.
- ❑ Representación equilibrada de mujeres y hombres en los grupos y categorías profesionales.
- ❑ Medidas de acción positiva en el acceso al empleo y en la promoción profesional en los niveles en los que las mujeres estén subrepresentadas.
- ❑ Garantizar la igualdad de retribución por trabajos de igual valor.
- ❑ Implantación de medidas adecuadas de prevención y sanción contra la violencia de género, acoso sexual y por razón de sexo.
- ❑ Implementación de actuaciones de responsabilidad social en materia de igualdad de oportunidades.



Aintzat hartu beharreko beste gai bat, ekoizpen- eta hornidura-katean balora daitekeena, emakumeen eta gizonen arteko genero-berdintasunerako politikena da. Kasu honetan, Cueñesko Udalak kontzeptua hainbat azpiataletan banatu du.

Berdinketa ebazteko irizpideak

Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko **9/2017 Legeko 147. artikulua** berdinketa ebazteko irizpideei buruzkoa da, adjudikatzeko irizpideen balorazioan bi enpresak edo gehiagok puntuazio berbera jaso baldin badute bakarrik aplikatu daitezkeela.

Esan behar dugu ez direla ia inoiz aplikatzen berdinketa ebazteko irizpide horiek, hori gertatzea erabat anekdotikoa eta ohizkanpoko delako eta, hartara, ez dutela ez eraginkortasunik, ez garrantzirik. Hala ere, artikulua ekarri dugu hona, honako hau aipatzen delako: «Bidezko merkataritzako antolakunde moduan aitortuta dauden erakundeen eskaintzak, bidezko merkataritzaren hautabidea duten produktuak objektutat dauzkaten kontratuak adjudikatzekoak».

147. artikulua. Berdinketa ebazteko irizpideak.

1. Kontratazio-organoek Administrazio-klausula partikularren agirietan adjudikazio-irizpide zehatzak ezarri ahalko dituzte berdinketa ebazteko, adjudikazio-irizpideak aplikatu ondoren bi eskaintzaren edo gehiagoren artean berdinketa gertatzen den kasuetan.

Berdinketa ebazteko adjudikazio-irizpide berariazko horiek kontratuaren objektuari lotuta egon beharko dute, eta honako hauei buruzkoak izango dira:

a) Eskaintzak aurkezteko epea amaitzen denean beren plantillan araudiak ezartzen dienaz gorako langile desgaituen ehunekoa duten enpresek aurkeztutako proposamenak.

Kasu horretan, enpresa lizitatzailerik batzuen artean berdinketa gertatzen bada proposamenik onuragarrienari dagokionez, eta horiek guztiek desgaitasunen bat duten langileak badituzte plantillan araudiak ezartzen duen baino proportzio handiagoan, plantillan desgaitasunen bat duten langile finkoen ehuneko handiena duen lizitatzailerik izango du lehentasuna kontratua adjudikatzean.

b) Laneratze-enpresen araubideari buruzko abenduaren 13ko 44/2007 Legean araututako laneratze-enpresek aurkeztutako proposamenak; laneratze-enpresatzat hartzeko, araudi horretan ezarritako baldintzak bete behar dituzte enpresek..

c) Izaera soziala edo laguntzazkoa duten prestazioei buruzko kontratuak adjudikatzeari dagokionez, irabazi-asmorik gabeko erakundeek nortasun juridikoa dutela aurkeztutako proposamenak; erakunde horien helburuak edo jardunak, betiere, zerikusi zuzena eduki behar du kontratuaren objektuarekin, estatutuen edo sorrerako araudiaren arabera, eta erakundeok dagokien erregistro ofizialean erregistratuta egon behar dute.

d) Bidezko merkataritzako antolakunde moduan aitortuta dauden erakunde-en eskaintzak, bidezko merkataritzaren hautabidea duten produktuak objektutzat dauzkaten kontratuak adjudikatzekoak.

e) Emakumeen eta gizonen arteko aukera-berdintasunaren aldeko gizarte- eta lan-arloetako neurriak biltzen dituzten proposamenak, eskaintzak aurkezteko epearen mugaeguna baino lehen enpresek aurkeztutakoak.

Berdinketa ebazteko irizpideak egiaztatzeko dokumentazioa, apartatu honetan aipatzen dena, berdinketa gertatzen den unean aurkeztuko dute lizitatzailerik, eta ez hori gertatu baino lehenago.

Ayuntamiento de Valladolid
Área de Urbanismo, Infraestructuras y
Vivienda
Oficina de contratación y supervisión de
proyectos



PLIEGO DE CLÁUSULAS ADMINISTRATIVAS PARTICULARES PARA LA TRAMITACIÓN DEL CONTRATO DE SUMINISTRO DEL VESTUARIO Y EQUIPOS DE PROTECCIÓN INDIVIDUAL DEL PERSONAL DEL ÁREA DE URBANISMO, INFRAESTRUCTURAS Y VIVIENDA, POR PROCEDIMIENTO ABIERTO.

H.4. PREFERENCIA DE ADJUDICACIÓN EN CASO DE EMPATES

Cuando tras efectuar la ponderación de todos los criterios de valoración establecidos para el contrato de que se trate, se produzca un empate en la puntuación otorgada a dos o más ofertas, se utilizarán los siguientes criterios para resolver dicha igualdad:

4º. Cuando se trate de servicios que incluyan productos en los que exista alternativa de comercio justo, se dará preferencia, de mantenerse el empate aplicando los tres criterios anteriores, a las entidades reconocidas como Organización de Comercio Justo, en los términos establecidos en el apartado 5 de la disposición adicional cuarta del TRLCSP.



Valladolideko Udalaren baldintza-agiri honetan, bidezko merkataritza aipatzen da berdinketa ebazteko irizpidetzat. Esan dugunez, berdinketa ebazteko irizpideak garrantzirik gabekoak dira, eta are gehiago bidezko merkataritza laugarren tokian ageri denean, berdinketa ebazteko aplikatuko diren irizpideen artean.

4. Zertara behartzen dugu? Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak

Sektore Publikoko Kontratuen 9/2017 Legeko 202. artikuluan arauturik daude:

202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

1. Kontratazio-organoek zilegi izango dute baldintza bereziak ezartzea kontratua egikaritzeko, baldin eta baldintza horiek lotuta badaude kontratuaren objektuarekin 145. artikuluan xedatutakoaren ildotik, ez badira zuzenean edo zeharka diskriminatzaileak, Europar Batasuneko zuzenbidearekin bateragarri badira eta hala lizitazio-iragarkian nola baldintza-agirietan adierazten badira.

Betiere, nahitaezkoa izango da hurrengo apartatuan zerrendatzen diren exekuzio-baldintza berezietako bat gutxienez ere ezartzea Administrazio-klausula partikularren agirian.

2. Exekuzio-baldintza horiek, bereziki, kontsiderazio ekonomikoei buruzkoak, berrikuntzari edo ingurumenari lotuak edo kontsiderazio sozialei buruzkoak izan ahalko dira.

Zehazki, honako helburu hauek erdiesteko kontsiderazioak ezarri ahalko dira ingurumen-arloan: berotegi-efektuko gasen igorpenak murriztea -horrekin Ekonomia Iraunkorrari buruzko martxoaren 4ko 2/2011 Legearen 88. artikuluan ezarritako helburua betetzen lagunduko da-; kontratua egikarituta ukiturik gerta daitezkeen ingurumen-balioak mantentzea edo hobetzea; uraren kudeaketa jasangarriagoa izatea; energia berriztagarrien erabilera sustatzea; produktu-birziklatzea eta ontzi berrerabilgarrien erabilera indartzea, edo solteko produktu-banaketari eta ekoizpen ekologikoari bultzada ematea.

Kontsiderazio sozialak nahiz enpleguari buruzkoak, besteak beste, honako helburu hauetakoren batekin ezarri ahalko dira: Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Nazio Batuen Konbentzioan aitorturiko eskubideak gauzatzea; legeria nazionalak exijitzen duen baino desgaitu kopuru handiagoa kontratatzea; lan-merkatuan txertatzeko zailtasun bereziak dauzkaten pertsonen enplegua sustatzea laneratze-enpresen bitartez, batez ere desgaitasuna duten edo gizarte-bazterketako egoeran edo arriskuan dauden pertsonena; merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdinkeriak ezabatzea, lanean gizonen eta

+

emakumeen arteko berdintasuna sustatzen duten neurrien aplikazioa erraztuz; emakumeek lan-merkatuan parte-hartze handiagoa izan dezaten erraztea, bai eta lanaren eta familiaren uztartzea erraztea ere; langabezia borrokatzea, batez ere gazteena, emakumeena eta iraupen luzekoa; lantokian prestakuntza eman dadin sustatzea; lantokian segurtasuna eta osasunaren babesa bermatzea, bai eta aplikatu beharreko hitzarmen kolektibo sektorialak eta lurralde-mailakoak betetzen direla bermatzea ere; laneko istripuak saihesteko neurriak hartzea; Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Tratatu 145. artikuluan definitzen den enplegu-estrategia koordinatua aipatuz ezartzen diren bestelako helburu batzuk; edo **oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezten exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxieneko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea.**

3. Baldintza-agiriekin zigorak ezarri ahalko dituzte, 192. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikuluan f) letran ezarritako ondoretarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikuluan 2. apartatuko c) letran ezarritako ondoretarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

Izaera sozialeko egikaritze-baldintza berezien arauketa aztertuko dugu, ikuspuntu juridiko eta praktikotik.

1. Arlo sozialeko, arlo etikoko nahiz ingurumen-arloko kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak sartzeko aukera eta legezotasuna eragozpen juridikorik batere gabekoa da: kontratu publikoen legeak espresuki eta argiro babesten du aukera hori.

2. Gainera, SPKLko 2022 artikuluan, berriaz eta zabal jasotzen dira gida honetan aztertzen ari garen ezaugarriak: **«oinarrizko lan-eskubideen errespetua bermatzea ekoizpen-katean zehar, Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarrizko konbentzioak bete daitezten exijituz, barnean harturik garapen-bidean dauden herrialdeetako ekoizle txikiei mesede egitearen aldeko kontsiderazioak, haiekin aldekoak dituzten merkataritza-harremanak edukitzekoak, nola baitira ekoizleei gutxieneko prezio bat ordaintzea eta sari bat ematea edo merkataritza-kate osoan gardentasun eta trazabilitate handiagoa egotea».**

3. Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak **egiazko betebehartzat eratzen dira**, eskaintzak aurkeztean enpresa lizitatzailleek beren gain hartzen dituztenak eta, kontratua betetzeko garaian, enpresa adjudikaziodunak nahitaez bete beharko dituenak. Ez dira aurretiazko baldintza, kontratua egikaritzeko faserako eskakizun bat baizik, kontratu hori behin adjudikaturik, jakina. Hortaz, ez da egiaztatu behar halakoak betetzen direla eskaintzak aurkezten diren unean; kontratua egikaritzeko fasean, bete daitezela eskatuko da.
4. Beste behin aipatzen da, egikaritzeko baldintza bereziak ezartzeko zilegitasuna aipatzean, **«lotuta badaude kontratuaren objektuarekin»**, baina berriz argitzen da kontzeptua, hau gehitzen baitu: **«145. artikuluan xedatutakoaren ildotik»**. Ez da lotura zuzenik eskatzen kontratuaren objektuarekin, CPV kodearekin edo izenburuarekin; kontratuaren prestazioarekin berarekin izan behar du lotura: kontratuaren prestazioan sartzen den edozein gai, haren alderdietako edozeinetan, haren bizikloaren edozein etapatan, haren substantzia materialekoak ez direnean ere, ekoizpen-prozesu zehatzean, edo ingurumenaren eta gizartearen ikuspuntutik jasagarriak eta bidezkoak diren ekoizpen- edo merkaturatze-moduei dagokienez.
5. Kontratuaren Legearen berritasunen artean, ohartarazi behar da **egikaritzeko baldintza berezi bat bederen ezarri behar dela nahitaez**. Hortaz, prestazioaren ezaugarriengatik egokia denean, eta kontratuaren objektuaren arabera, bidezko merkataritzaren inguruko egikaritze-baldintza berezi bat ezarri ahalko da.
6. Berriz ematen dugu **betebehar lauso, orokor eta zehaztugabeak saihesteko** gomendioa. Betebehartzat ezarri behar da bidezko merkataritzako produktu-kopuru zehatz bat kontratatzea, zein produktu diren identifikatzea eta haien zenbatekoa eurotan kuantifikatzea, edo lizitazio-prezioaren barruan hartzen duten ehunekoak.
7. Halaber, ohartarazi beharko dugu **bat etorri beharko dutela kontratuaren objektuarekin, haren edukiarekin eta ezaugarriekin, zenbatekoarekin eta egikaritzeko epearekin**, proportzionalak eta koherenteak diren bidezko merkataritzaren inguruko egikaritze-baldintza berezi batzuk jarriko baditugu.
8. Haren garrantziagatik, nabarmendu beharra dago **gida honetan lehen azertu ditugun zehaztapan teknikoen eta kontratua egikaritzeko baldintza berezien arteko paralelismoa**. Bi kasuetan, ezinbesteko betebeharrak ezartzen dira, eta ez dago desberdintasunik haien definizioaren aldetik eta tratamendu juridikoaren aldetik; hartara, bada posible bidezko merkataritzako ezaugarriak zehaztapan tekniko gisa edo egikaritzeko baldintza berezi gisa ezartzea. Zalantzarik izanez gero, gure aholkua da egikaritzeko baldintza bereziak aukeratzea, kontratu-balio handiagoa dutelako, halakoak betetzen ez badira, egiaztapenari buruzko atalean gero ikusiko dugunez.
9. Gogorarazten dugu, orobat, **egikaritzeko baldintza bereziak (nahitaez bete beharrekoak) eta adjudikatzeko irizpideak (norberak bere gain borondatez**

hartzekoak) badirela bateragarriak eta guztiz sinergikoak. Batzuetan, ez da aukeratu beharrik egongo batzuen eta besteen artean, eta bidezko merkataritzaren inguruko irizpideak bietan sartzea izango da komenigarria.

Adibide bat jarriko dugu: betebeharrak edo egikaritzeko baldintzatzat ezartzen da horniduran bidezko merkataritzako produktuak sartu beharko direla lizitazio-aurrekontuaren % 5eko balioarekin gutxienez. Eta, gainera, adjudikatzeko irizpide bat ezarri ahalko da, enpresei 5 puntuko balorazioa emateko, horniduraren edukian bidezko merkataritzako produktuak sartzeko konpromisoa hartzen badute, lizitazio-aurrekontuaren % 10 hartzen duen zenbateko batean.

EGIKARITZEKO BALDINTZA BEREZIEI BURUZKO KLAUSULAK

Ez ditugu errepikatu nahi adjudikatzeko irizpideei buruzko atalean eman ditugun ereduak; esan dezagun, bakarrik, lehen hainbat alderdi proposatu ditugula baloratzeko, eta enpresek, beraz, irizpide horiek aukeratzea ala ez erabakitzen dutela; ondorioz, jakina, puntu gehiago edo gutxiago lortuko dituzte.

Eta orain egikaritzeko baldintza berezien fasean gaudenez, nahikoa litzateke lehen aipatu ditugun klausula-eredu horiek hartzea, baina punturik eman gabe, haien idazketaren bidez nahitaezko betebeharrak bihurtuko ditugu eta.

Hau da, lehen 5 punturekin baloratzen genuen horniduran bidezko merkataritzako produktu jakin batzuk sartzea; kasu honetan, ordea, ez da aukera bat izango, klausula hori betebeharrak bihurtzen delako.

Lehen, esaterako, 5 punturekin baloratzen genuen arropa-hornidurak bermatzen bazuen LANEren konbentzioak betetzen zirela hornidura-kate guztian zehar; fase honetan eta atal honetan, berriz, ez dago ezer puntuatzerik, hori aginduzkoa eta nahitaezkoa izango baita.

ADIBIDEAK ETA JARDUNBIDE EGOKIAK



Durangoko Merinaldearen
Amankomunazgoa
Mancomunidad
de la Merindad de Durango

Carátula del pliego de cláusulas administrativas particulares para la adjudicación del contrato de suministro de dos camiones con caja compactadora de carga lateral, con elevacontenedores y sistema de pesaje, con destino al servicio de recogida de residuos sólidos urbanos de la Mancomunidad de la Merindad de Durango, por procedimiento abierto, con una pluralidad de criterios de adjudicación y tramitación ordinaria.

9.8.2. Condiciones especiales de ejecución

Se consideran condiciones especiales de ejecución:

1. Cumplimiento de la normativa medioambiental, social o laboral.

El contratista, en la ejecución del contrato, cumplirá las obligaciones aplicables en materia medioambiental, social o laboral establecidas en el Derecho de la Unión Europea, el Derecho nacional, los convenios colectivos o por las disposiciones de Derecho internacional medioambiental, social y laboral que vinculen al Estado y en particular las establecidas en el Anexo V de la LCSP.

El contratista asume la obligación de respetar los derechos laborales básicos a lo largo de toda la cadena de producción y el cumplimiento de las convenciones fundamentales de la Organización Internacional del Trabajo y en especial, las siguientes:

Las Convenciones 29 y 105, relativas a la supresión del trabajo forzado.

Las Convenciones 87 y 98, relativas a la libertad sindical, de asociación y negociación colectiva.

La Convención 100, relativa a la igualdad de remuneración entre la mano de obra masculina y la mano de obra femenina por un trabajo de igual valor.

La Convención 111, contra la discriminación en el acceso a empleo y las condiciones laborales por razones de raza, color, sexo, religión, opinión pública, extracción nacional u origen social.

La Convención 138, relativa a la abolición de la explotación y el trabajo infantil.

La Convención 182, relativa a la prohibición de las peores formas de trabajo infantil y de la acción inmediata para su eliminación.

Asimismo, realizará la pertinente declaración responsable de aplicación de dicha normativa a la hora de elaborar la oferta, de conformidad con el **Anexo II DECLARACIÓN RESPONSABLE**.



Durangoko Merinaldearen Amankomunazgoaren baldintza-agiri honetan, egikaritzeko baldintza berezi gisa ezartzen da (nahitaez bete beharrekoa) ekoizpen-kate guztian zehar oinarritzko lan-baldintzak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen oinarritzko konbentzioak bete daitezzen errespetatzeko konpromisoa; gainera, azken horien arteko konbentzio nagusiak berariaz aipatzen ditu.



CENTROS CIVICOS

PLIEGO DE PRESCRIPCIONES TÉCNICAS PARA LA CONTRATACIÓN DE LOS SERVICIOS DE BAR EN CENTRO CIVICO DELICIAS POR PROCEDIMIENTO ABIERTO

3ª.- Condiciones generales.-

Además de las condiciones generales recogidas en el pliego de cláusulas administrativas particulares, los adjudicatarios estarán obligados al cumplimiento de las siguientes:

3.2 Café de Comercio Justo

Será requisito obligatorio la utilización del café de comercio justo. El contratista deberá acreditar la condición de café de comercio justo, aportando los correspondientes certificados, expedidos por entidades certificadoras reconocidas, o en su defecto, por alguna de las entidades integradas en la Coordinadora Estatal de Comercio Justo.



Zaragozako Udalak, kasu honetan, egikaritzeko baldintza berezitat ezarri du (nahitaez bete beharrekoa) erabiliko den kafea ezinbestez bidezko merkataritzakoa izatea.

EXPIE. 0196/2018 “PROYECTO DE RECONFIGURACIÓN DE LA RED DE FIBRA ÓPTICA MUNICIPAL”

- Referidas a los elementos TIC:

Compromiso de instalar todos los switches y SAIs con etiquetado energético y/o ecoetiquetado similar a los siguientes: Energy Star, Etiqueta ecológica de la UE, Ecoetiqueta Cisne Nórdico, Ecoetiqueta Ángel Axul, TCO Certified.....SI/NO



Murtziako Udalaren agiri honetan, nahitaezko elementutzat ikusten dugu (egikaritzeko baldintza berezia) ekoetiketa jakin batzuk izatea: Energy Star, Ipartar Beltxarga (Beltxarga Zuria), Aingeru Urdina, edo TCO Certified.

SOLUCIONS INTEGRALS PER ALS RESIDUS, S.A.U.

**PLIEGO DE CLAUSULAS PARTICULARES
CONTRATACIÓN NO ARMONIZADA**

**SUMINISTRO DE ROPA Y EQUIPOS DE PROTECCION INDIVIDUAL PARA EL
PERSONAL DE SIRESA
CTSI281**

ANEXO Nº.2
COMPROMISO ETICO
(A CUMPLIMENTAR EN EL LOTE 1 Y LOTE 2)

Que el que suscribe..... con DNInombre y representación de la empresa.....con domicilio social en..... declara bajo su responsabilidad, CERTIFICA:

Que las empresas suministradoras de los tejidos principales son: (indicar para cada una de las empresas dirección, número, ciudad, municipio, teléfono, persona de contacto i país)

- a)
- b)
- c)

...

Que las empresas confeccionadoras del producto final son: indicar para cada una de las empresas dirección, número, ciudad, municipio, teléfono, persona de contacto i país)

- a)
- b)
- c)

...

Que garantiza que la producción, hecha de manera directa o mediante subcontratación, y los textiles y otros materiales específicos que se utilizan, se han hecho respetando los derechos básicos en el trabajo, recogidos en la Declaración de la Organización Internacional del Trabajo, relativa a los principios i derechos fundamentales.

Que para acreditar este punto se adjunta a este escrito la documentación siguiente (seleccionar según el tipo de certificación presentada):

- 1) Certificado de código de conducta (SGE 21, SA 8000, Fair Wear Foundation, Made in Green o equivalente)
- 2) Certificado de auditoría hecha por auditorías externas (adjuntar el nombre, la dirección, el teléfono i los datos de contacto de la empresa certificadora).



Enpresa publiko baten beste baldintza-agiri bat, arropa-hornidurari buruzkoa; bertan, oinarriko lan-
eskubideen errespetua eskatzen da, eta egiaztapen-sistemak ezartzen dira, bai ziurtagiri bidez (SG21,
SA8000, Fair Wear Foundation, Made in Green), bai kanpo-ikuskapenen bidez.

5. Nola egiaztatuko dugu? Betetzearen egiaztapena eta kontrola

Klausula sozialak betetzen diren ala ez egiaztatzeko fasea funtsezko unea da kontratazio publiko arduratsuaren prozesuan.

Egia da, gero eta gehiago, Administrazio publiko askok beren baldintza-agirietan hainbat klausula sozial sartzen dituztela, baina, zoritxarrez, gutxi batzuek bakarrik begiratzen eta egiaztatzen dute enpresa adjudikaziodunak halakoak behar bezala betetzen ari diren. Eta, jakina, nahi baldin badugu bidezko merkataritzako irizpideak eraginkorrak izatea, praktikan egiaztatu behar da betetzen direla.

Hori zaila dela jakinik, **kontrol eta egiaztapeneko sistema erraz eta eraginkor bat proposatzen dugu, hurrengo proposamenaren bidez (kontratzioko baldintza-agirietan berezko atal gisa sartzeko gomendatzen dugu).**

EKOIZPEN-BALDINTZEN ETA HORNIDURA-KATEEN INGURUKO GIZARTE- ETA INGURUMEN-ERANTZUKIZUNEN IRIZPIDEAK BETETZEA ETA EGIAZTATZEA.

1. Enpresa kontratistak, kontratuaren egikaritze osoaren erantzule bakarra den aldetik, bere gain harturiko adjudikazio-irizpide guztiak bete beharko ditu, bai eta egikaritzeko baldintza berezi guztiak ere, ekoizpen-kate guztian zehar arlo sozialeko eta ingurumen-arloko erantzukizuna bermatzeari dagokionez; horrez gain, aipatutakoak
2. Arlo sozialeko eta ingurumen-arloko adjudikazio-irizpideak nahiz egikaritze-baldintzabereziak praktikan betetzendirela egiaztatzeko, enpresa adjudikaziodunak kontratuaren arduradunari edota kontratazio-organoari honako hauek aurkeztu beharko dizkio: albaranak edo fakturak, ziurtagiriak edo homologazioak, eta kasua denean, fitxa teknikoak, edo beste edozein dokumentazio, produktu edo prozesuak arduratsuak eta jasagarriak direla egiaztatzen duena.

+

3. Arlo sozialeko eta ingurumen-arloko adjudikazio-irizpideak eta baldintza bereziak funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen dira, eta haiek ez betetzeak oso izaera larria izango du; hala, betetzen ez badira, kontratazio-organoak erabaki ahalko du:

- Erruzko ez-betetzeagatik kontratua suntsiaraztea; horren ondorioz, daitekeena da bi urteko epean desgaitzea lizitazio-prozedura publiko orotan lizitatzeko.
- Kontratua egikaritzen jarraitzea, zigor bat ezarrita; kontratazio-organoak larritasunaren arabera zenbatetsi beharko du (gehienez, kontratuaren prezioaren % 10).
- Luzapena aurreikusita duten kontratuei dagokienez, ez da erabakiko halakoak luzatzea, enpresa adjudikaziodunak larriki bete ez dituen egikaritzeko baldintza bereziak edo arlo sozialeko adjudikazio-irizpideak.

4. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu beharko dute kontratuaren arduradunak edota jarraipen-unitateak, eta gizarte- eta ingurumen-irizpideak nola betetzen diren ebaluatu. Baldin betetzen ez badira, horren berri eman beharko du, edo, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura has dadila proposatu.

Laburbilduz:

1. Proposatzen da baldintza-agirietan betiere adieraztea nola (zer dokumentazio, xehetasun, agirirekin) eta noiz egiaztatuko den halako baldintzak betetzen direla.
2. Frogatzeko karga enpresa kontratistak hartuko du bere gain. Eta behin kontratua adjudikaturik, ez da beharrezkoa ezer eskatzerik, betebeharrak hori badagoelako baldintza-agirietan ezarriak.
3. Bidezko merkataritzako irizpideak funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen dira, hau da, garrantzi handieneko kategoriakotzat.
4. Berariaz ohartarazten da aurkeztutako dokumentazioa erkatu eta egiaztatuko dela.
5. Berariaz adierazten da, bete ezean, kontratua suntsitu ahalko dela, zigorrak ezarri ahalko direla, kontratua luzapenik gabe utzi ahalko dela, eta daitekeena dela kontratatzeke debekua ere ezartzea.
6. Sistema hau aplikatuz, prozedura erabateko gardentasunaz eta tratu-berdintasunaz hornitzen da, enpresa lizitatzailerik guztiek aurretiaz dakitelako zer dokumentazio aurkeztu beharko duten adjudikaziodun iritelen badira. Eta lizitatzailerik mezu laukoitza helarazten diegu:

- Klausulak praktikan eta benetan bete behar dira.
- Betetzen dituztela egiaztatu beharko dute, aurretiaz ezarritako dokumentazioa aurkeztuz.
- Ongi egikaritu direla egiaztatuko da, kontrol-funtzioa berariaz esleituta.
- Ez betetzeak ondorio larriak ekarriko ditu.

Proposaturiko klausulek prozedura eraginkor bat ezartzen dute, eta Sektore Publikoko Kontratuen azaroaren 8ko 9/2017 Legearen arabera arautua.

202. artikulua. Izaera sozial, etiko edo ingurumenekoa duten kontratuak edo bestelako izaera duten kontratuak egikaritzeko baldintza bereziak.

3. Baldintza-agiriekin zigorrek ezarri ahalko dituzte, 192. artikuluan 1. apartatuan aurreikusitakoaren arabera, kontratua egikaritzeko baldintza bereziak urratzen direnerako, edo kontratuko funtsezko betebehartzat jo ahalko du baldintza bereziok betetzea, 211. artikuluan f) letran ezarritako ondoretarako. Baldintza horiek ez betetzea ez bada kontratua suntsiarazteko kausatzat tipifikatzen, ez-betetze hori arau-hauste larritzat jo ahalko da baldintza-agirietan, erregelamenduz zehaztutako moduan, 71. artikuluan 2. apartatuko c) letran ezarritako ondoretarako.

4. Kontratuaren parte diren exekuzio-baldintza berezi guztiak orobat exijituko zaizkie kontratua egikaritzeko parte hartzen duten azpikontratista guztiei.

122. artikulua. Administrazio-klausula partikularren agiriak.

2. Administrazio-klausula partikularren agirian, honako hauek jasoko dira: kontratuaren kaudimen- eta adjudikazio-irizpideak; kaudimen-irizpide eta adjudikazio-irizpide moduan edo egikaritzeko baldintza berezi moduan ezartzen diren gizarte-baldintzak, lan-baldintzak eta ingurumen-baldintzak; kontratuko alderdien eskubideak eta betebeharrak definitzen dituzten itunak eta baldintzak; kontratuaren lagapen-aurreikuspena, salbu eta hori ezinezkoa denean 214.1 artikuluan bigarren paragrafoan ezarritakoari jarraituz; langileen lan-baldintzak sektorean aplikatzekoa den hitzarmen kolektiboari jarraituz betetzeko adjudikaziodunaren betebeharra, eta lege honek eta berau garatzeko arauak eskatutako gainerako aipamenak. Kontratuak mistoak direnean, kontratuaren ondorioei, egikaritzeari eta azkentzeari aplikatu beharreko araubide juridikoa zehaztuko da, kontratuotan batutako prestazioei aplikatu beharreko arauak kontuan hartuz.



3. Administrazio-klausula partikularren agirietan, zigorrak ezar daitezke, 192. artikulua 1. apartatua aurreikusitakoarekin bat etorriz, prestazioa bete ez edo behar bezala bete ez eta haren ezaugarri eragiten zaien kasuetarako, eta, bereziki, ezaugarri horiek adjudikazio-irizpideak zehazteko kontuan hartu diren kasuetarako; edo funtsezko kontratu-betebehartzat jo daiteke ezaugarri horiek zehatz-mehatz betetzea, 211. artikulua 1. apartatua f) letran adierazitako ondorioetarako.

192. artikulua. Ez-betetze partziala edo betetze akastuna.

1. Baldintza-agirietan edo kontratuaren deskripzio-agirian zigorrak ezarri ahalko dira kontratuaren helburu den prestazioa behar ez bezala emateagatik edo kontratua egikaritzeko konpromisoak edo baldintza bereziak -76. artikulua 2. apartatuarekin eta 202. artikulua 1. apartatuarekin bat etorriz ezarritakoak- ez betetzeagatik. Zigor horiek proportzionalak izan beharko dute ez-betetzearen larritasunarekiko, eta horietako bakoitzaren zenbatekoak ezingo dira izan kontratuko prezioaren ehuneko 10etik gorakoak BEZik gabe, eta haien guztizkoak ezingo du gainditu, ezta ere, kontratuaren prezioaren ehuneko 50a.

194. artikulua. Kalte-galerak eta zigor-ezarpena.

1. Aurreko bi artikuluetan aurreikusitako zigorrak kontratazio-organoaren erabaki baten bidez ezarriko dira. Erabaki hori kontratuaren arduradunak proposatu ondoren hartuko da, baldin eta arduradunik izendatu bada, eta berehala egikaritzekoa izango da. Zigorrek kontratistari ordainketa oso edo partzial gisa ordaindu beharrekotik dagokion zenbatekoa kenduz gauzatuko dira edo, hala badagokio, jarritako bermetik, aipatutako ordain horietatik kendu ezin direnean.

211. artikulua. Suntsiarazteko kausak.

1. Hauek dira kontratua suntsiarazteko kausak:

[...]

Halaber, kontratua suntsiarazteko kausa izango da funtsezko gainerako betebeharrak ez betetzea, baldin eta azken horiek halakotzat kalifikatu badira baldintza-agirietan edo kasuko deskripzio-agirian, honako bi baldintza hauek gertatzen direnean:

1.a 34. artikulua 1. apartatua itunen askatasunerako ezartzen dituen mugak errespetatzea betebeharrak horiek.

2.a Zehaztasunez, argitasunez eta modu zalantzagabea aipatuta agertzea baldintza-agirietan edo deskripzio-agirian; klausula orokorrak ez dira onartuko.



71. artikulua. Kontratatzeko debekuak.

2. Aurreko apartatuan aipatutako kasuetan ez ezik, enpresaburuek ondorengo kasu hauetan ere ezingo dute kontraturik egin lege honen 3. artikuluan jasotako erakundeekin, 73. artikuluan ezarritako baldintzetan:

[...]

c) Kontratuan funtsezkoak diren klausulak beteez badituzte 202. artikuluekin bat etorri kontratua egikaritzeko ezarritako baldintza bereziak barne-, ez-betetze hori baldintza-agirietan edo kontratuan arau-hauste astuntzat jotzen denean eta tartean enpresaburuaren doloa, errua edo zabarkeria izan denean, eta betiere zigorrak ezarri badira edo kalte-galerak ordaindu badira.

62. artikulua. Kontratuaren arduraduna.

1. [...] kontratazio-organoek kontratuaren arduradun bat izendatu beharko dute. Pertsona horrek, esleitu dizkioten ahalmenen barruan, kontratua nola egikaritzen den gainbegiratuko du, eta beharrezkoak diren erabakiak hartu eta beharrezkoak diren jarraibideak emango ditu, hitzartutako prestazioa behar bezala ematen dela bermatzeko.

6. Ondorioak

Aukeren laburpena

EROSKETA PUBLIKOAN GIZARTE ETA INGURUMEN ERANTZUKIZUNEN IRIZPIDEAK SARTZEA EKOIZPEN-BALDINTZEN ETA HORNIDURA-KATEEN INGURUAN

1


Zer kontratatuko dugu?

Gizarte eta ingurumen erantzukizuneko irizpideak dituen kontratuaren objektuaren deskribapena.

2

Nor kontratatuko dugu?

Enplegu-zentro berezietarako, laneratze-enpresetarako edo ekonomia sozial eta solidarioko erakundeetarako kontratu erreserbatuak. Kontratu txikiak. Kaudimen teknikoak.



3

Zer baloratuko dugu?

Gizarte eta ingurumen erantzukizuneko adkudikazio-irizpideak.

4


Zertara behartzen dugu edo zer eskatzen dugu?

Gizarte- eta ingurumen-arloko egikaritze-baldintzak.

5

Nola egiaztatuko dugu?

Betetzearen egiaztapena eta kontrola.




Zer kontratatuko dugu?

1. Gizarte eta ingurumen erantzukizuneko irizpideak dituen kontratuaren objektua deskribatzea, eta ekoizpen-baldintzetan eta hornidura-katean egon beharreko gizarte eta ingurumen erantzukizuneko irizpideak aipatzea.
2. Preskripzio edo zehaztapen tekniko sozialak eta ingurumen-arlokoak zehaztea.
3. Kontratua sortaka zatitzea eta haietako batzuk erreserbatzea, edo sortetako batean edo batzuetan ekoizpen-baldintzen eta hornidura-kateen inguruko irizpide espezifikoak zehaztea.
4. Etiketa eta ziurtagiri sozialak eta ekologikoak espresuki aipatzea.



Enpresak hautatzea


1. Kontratua enplegu-zentro berezietarako eta laneratze-enpresetarako erreserbatzea.
2. Kontratua ekonomia sozial eta solidarioko erakundeetarako erreserbatzea.
3. Kontratu txikiak eta parte hartzeko gonbidapenak erabiltzea erantzukizunaren arloko ziurtagiriak dituzten enpresak hautatzeko.
4. Kaudimen tekniko sozialerako baldintza jakin batzuk zehaztea, hornidura-kateko kudeaketa-sistemek giza eskubideak eta Lanaren Nazioarteko Erakundearen konbentzioak betetzen dituztela bermatzeko.



Gizarte eta ingurumen arloak baloratzea

Honako arlo hauek ebaluatzen dituzten adjudikazio-irizpideak zehaztea:

1. Bidezko merkataritza.
2. Giza eskubideak eta LNEren konbentzioak babestea.
3. Enpresa lizitatuileek gizarte- eta ingurumen-arloko erantzukizunaren inguruko ziurtagiriak izatea.
4. Produktu eta hornidurek gizarte- eta ingurumen-arloko etiketak izatea.
5. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
6. Zailtasunak dituzten pertsonak laneratzea eta gizarteratzea.
7. Ingurumen-alderdiak.



Zertara behartzen dugu?

Kontratua egikaritzeko baldintza bereziak zehaztea kontratua egikaritzean eskakizun jakin batzuk betetzera behartzeko:

1. Bidezko merkataritza.
2. Giza eskubideak eta LNEren konbentzioak babestea.
3. Enpresa lizitatuak gizarte- eta ingurumen-arloko erantzukizunaren inguruko ziurtagiriak izatea.
4. Produktu eta hornidurek gizarte- eta ingurumen-arloko etiketak izatea.
5. Emakume eta gizonen arteko berdintasuna.
6. Zailtasunak dituzten pertsonak laneratzea eta gizarteratzea.
7. Ingurumen-alderdiak.



Kontratua behar bezala betetzen dela egiaztatzea

1. Enpresa kontratistak gizarte- eta ingurumen-arloko irizpide guztiak betetzen dituela modu eraginkor eta dokumentatua egiaztatzea beharko du.
2. Horretarako, enpresa adjudikaziodunak honako hauek aurkeztu beharko dizkio: albaranak edo fakturak, ziurtagiriak edo homologazioak, eta kasua denean, fitxa teknikoak, edo beste edozein dokumentazio, produktu edo prozesuak arduratsuak eta jasagarriak direla egiaztatzen duena.
3. Arlo sozialeko eta ingurumen-arloko adjudikazio-irizpideak eta baldintza bereziak funtsezko kontratu-betebehartzat jotzen dira, eta haiek ez betetzeak oso izaera larria izango du; hala, betetzen ez badira, kontratazio-organoak kontratua suntsiaraztea edo ez luzatzea erabaki ahal izango du.
4. Aurkeztutako dokumentazioa aztertu beharko dute kontratuaren arduradunak edota jarraipen-unitateak, eta gizarte- eta ingurumen-irizpideak nola betetzen diren ebaluatu. Baldin betetzen ez badira, horren berri eman beharko du, edo, hala dagokionean, zigorrak ezartzeko edo kontratua suntsiarazteko prozedura has dadila proposatu.



consumoresponsable.info

 [zentzuzkontsumitu](https://www.facebook.com/zentzuzkontsumitu)

 [zentzuz](https://twitter.com/zentzuz)

 [zentzuzkontsumitu](https://www.youtube.com/zentzuzkontsumitu)